



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

JARDUEREN OROITIDAZKIA

2020







Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

JARDUEREN OROITIDAZKIA

2020

Aurkibidea

Aurkezpena	05
I 2020ko Plan Estrategikoa	06
II Lehia sustatzea	09
III Lehia defendatzea	31
IV Jarduera instituzionala finkatzea	44
V Kudeaketa iraunkorra eta pertsonengan oinarritua	59



Lehiaren
Euskal Agintaritzak
Autoridad Vasca
de la Competencia

Aurkezpena

2020a ezohiko urtea izan da. Guztiok egokitu behar izan dugu ezezagun zitzaigun egoera batera, bai maila pertsonalean, bai arlo profesionalean.

Lehiaren Euskal Agintaritzak ere (aurrerantzean, LEA/AVC) ahalegin berezia egin behar izan du gizarteari zerbitzua eman eta merkatuan lehia zaintzeko duen helburua bete ahal izateko. Hala, pandemia-garaiotan gure eginkizuna garrantzitsua izan da, nola araudi-mailan, txosten ugari igorri baititugu administrazioko araudien gainean, hala funtsezko produktuak eta zerbitzuak hornitzeko zailtasunei aurre egiteko eta merkatuan lehiaren aurkakoak izan diren jardunbideak antzemateko lanean.

Eta gizartearekiko dugun konpromiso hori bistan geratu da LEA/AVCren jardueran. Alde batetik, 2020ko Ekintza Planean berezitasun bat sartu genuen: berriaz jaso genuen arreta berezia jarri beharko zela lehiaren gaineko arau-hausteen gainean, bereziki arau-hauste horiek kolektibo edo pertsona zaurga-

rrientzat kaltegarriak izan bazitezkeen. Era berean, ikuspegi horri jarraikiz, 2020an Munduko Itunera atxiki da LEA/AVC. Halaber, gure jarduera Garapen Iraunkorrek Helburuekin (GIH) bateratzeko lanean hasi da. Ekimen honek, zerbitzu publikoa izateko dugun borondatea erakustez gain, gure jarduerak gizartean dituen ondorioak neurtzeko aukera ematen digu.

Horrez gain, poz handiak ere izan ditugu. Horren adibide, ASCOM 2020 Saria jaso dugu, Compliance arloan, eta, bereziki, lehiaren gainean egin dugun lanagatik. Sari horrek, zalantzarik gabe, egin dugun lana baloratu du. Edonola ere, etorkizunean ere lan horrekin jarraituko dugu, honako helburu hau erdies-terko: compliance kultura (hau da, betetze-kultura) lehiaren arlora hedatzea, enpresen kudeaketako aldagai bat gehiago bihur dadin.

Alba Urresola Clavero
Lehendakaria





2020ko Plan
Estrategikoa



I 2020ko Plan Estrategikoa

LEA/AVCK bere jardueren urteko plangintza egiten du, 2018-2022 Plan Estrategikoaren arabera. Hala, aurreko ekitaldietan bezala, 2020. urterako ekintza batzuk programatu ziren, helburu estrategikoak betetzen laguntzeko asmoz. Onartu aurretik, 2020ko Ekintza Plan hori publikoki kontsultatu zen eragile ekonomikoen, eta, oro har, herritarren artean, horiek guztiak beren ekarpenak egin zituzten aztertu beharreko sektore ekonomikoetara, lizitazio publikoetan lehia hobetzeko jarduerak interesgarriak eta prestakuntza-proposamenak buruz.

Lehiaren Euskal Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 15eko bileran onartu zuen 2020ko Ekintza Plana. Bertan, guztira 15 jarduerak berri aurreikusi ziren, bere Plan Estrategikoaren barruan lehendik ere martxan ziren jarduerak lerroei jarraitutasuna emateko. Aurreikusitako ekintzen helburua, hain zuzen ere, lehia defendatzeko eta sustatzeko jardueren arteko orekari eustea da, betiere legezotasun, erabilgarritasun, zorrotasun, proaktibitate, gardentasun eta independentziaren printzipioen arabera.

Lau helburu estrategikoetan aurreikusitako jarduerak berriak

1. HE Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea

 *Enpresa eta operadore ekonomikoetara hurbiltzea.*


 **Lankidetzaren sustatzea** lehiaren beste agintaritza batzuekin eta lotutako erakundeekin.

 **Estatuko eta nazioarteko kongresu eta foroetan** aktiboki parte hartzea.

 **ECN+ Zuzentarauaren transposizioa** aztertzea, bai eta horrek LEAren eskumenetan duen eragina ere.

3. HE Lehiaren sustapena bultzatzea

 **Sektore ekonomiko garrantzitsuei buruzko azterlanak egitea.**

 **Administrazio-erregulazio onari buruzko gida** bat egitea.


 **Kontratazio txikia** aztertzea.

 **Ikastaroak edo kolaborazioak egitea unibertsitateekin, ikastetxeekin** eta beste entitate batzuekin.

2. HE Lehia aldezteko merkatuetan

 **Lahiakortasunaren aurkako jarduerak detektatzeko** baliabide propioak indartzea.

 **Kontratazio publikoko kolusio-praktikak aztertzea.**

 **Lehiaren defentsa**, talde ahulei eragiten dieten merkatu/sektore sentikorretan.

4. HE Bikaintasun operatiboa lortzea

 **LEAko profesinalen eta langile berrien prestakuntza** planifikatzea.

 **Digitalizazio-prozesua** amaitzea.

 **LEAren artxibategia** birkonfiguratzea.

 **Web-orri eta salaketa-kanal berriak.**

2020. urtean zehar, guztira 108 espedientetan lan egin du LEA/AVCK (32 "Lehiaren defentsari" buruzkoak eta 76 "Lehiaren sustapenari" buruzkoak). Espediente horietan, zehapen-eskumenak, sustapen-eskumenak, aurkaratze-eskumenak eta irizpen-eta kontsulta-eskumenak baliatu ditu.

Eskumen horiek baliatzean, COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortutako kasuistikara egokitu behar izan da aurreikusitako jardueren xedea. Kasuistika horren zioz, izan ere, azkar erantzun behar izan da kontsumitzaileentzat bereziki sentikorrek diren produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko eta hornitzeko

moduetan lehiaren aurkako jokabide posibleak agertu direnean; segurtasun juridikoa eman behar izan zaie eragile ekonomikoari; eta gomendioak eman behar izan dira osasun-larrialdiak merkatuan sartzeko orduan txertatu dituen barrerak mugatzeko, azken horiek ez baitaude erregulazio ekonomiko eraginkorren printzipioen arabera justifikatuta, hots beharri-zanaren, proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren arabera.

2020an LEA/AVCren Plan Estrategikoa ezartzeko orduan erdietsi diren mugarri eta lorpen nagusiak, helburu estrategiko bakoitzean, honako hauek izan dira:

2018-2020 Plan Estrategikoaren 2020ko ebaluazioa

1. HE Erakundea sendotzea eta ezagutaraztea



Lehiaren Euskal Agintaritzaren **zaintza aktiboa, pandemiak jarduera ekonomikoan duen eraginari dagokionez.**



Antolakuntza eta partaidetza, **lehiaren gainera foro garrantzitsuetan, nazio- eta nazioarte-mailan: ICN, OCDE, UNCTAD, W@Competition, Compliance jardunaldia, Udako ikastaroa, Futbolari eta Lehiari buruzko jardunaldia.**



Lan instituzional trinkoa: **ECN+ Zuzentarauaren eta Lehiaren Defentsarako Legea (LDL) aldatzeko lege-aurreproiektuaren transposizioa.**



Autonomia-erkidegoetako lehia-agintaritzekiko harremanetan sakontzea.

3. HE Lehiaren sustapena bultzatzea



LEKen 21 ebazpen, sustapenaren alorrean.

76 espediente: 44, sustapenekoak; 11, araukoak; 2, aurkaratzeakoak; eta 19, kontsultakoak.

VTCri buruzko Dekretua aurkaratzea.



Jardunbide Egokien Dekalogo eta **Lankidetzako Publiko-Pribatuari buruzko txostena.**



Euskadin erregulazioa hobetzeko azterlanaren 1. fasea: 2.400 erakunderi baino gehiagori kontsulta publikoa egitea.

2. HE Lehia defendatzea merkatuetan



Lehiaren Euskal Kontseiluaren 32 gai aztertzea eta haien jarraipena egitea; 3 ebazpenetan amaitu dira. Nabarmentzekoa: **Olio birziklatuaren espedientearen gainera zehapen-ebazpena.**



5 enpresaren egoitzetan ikusapena egitea, informazio erreserbatuaren fasean dauden bi espedienteren barruan.



Hiru zehapen-espediente berri abiaraztea, kolektibo kalteberei edo sentikorrei eragiten dieten lehiaren aurkako jokabideei arreta berezia eskainiz.

4. HE Bikaintasun operatiboa lortzea



Nazio Batuen Mundu Itunari lotutako erakunde gisa erregistratzea eta jarduera Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatzen hastea.



Langileen prestakuntza trinkotzea.



Salaketen kanal digitala, euskadi.eus atarian.



Hedapen-euskarri berria sei hilean behingo **LEA/AVC Newsletter** baten bidez.

Jarduera hauek garatzean, Plan Estrategikoko 38 ekintzetako 37tan eduki da eragina. Hala, aurrera

egin da zehaztutako lau helburu estrategikoetan eta aurreikusitako ekintza estrategikoen % 97an.

Lehia sustatzea





II

Lehia sustatzea

1

Prebentzio etengabea, egokitua eta malgua

LEA/AVCk sustapen-eskumenak (Advocacy) gauzatzen ditu. Horretarako, zehatzaileak ez diren tresna batzuk erabiltzen ditu, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen (aurrerantzean, LDL) gaineko arau-hausteak prebenitzeko eta, era berean, EAEko merkatuetako lehia- eta gardentasun-baldintzak hobetzeko. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 1eko 1/2012 Legearen (aurrerantzean, LEAL) 3. artikuluko 3. paragrafoan eta hurrengoetan arautzen da eginkizun hori, eta, funtsean, merkatu horietan lehia sustatu, hobetu eta bultzatzea helburu duen prebentzio-eginkizuna da.

Egunerokoan, LEA/AVCk, beraz, eragile ekonomiko guztiei, Administrazioari eta, oro har, herritarrei iritsiko zaien lehia-kultura zabaltzeko lan egiten du. Lehiaren aldeko bultzada hori merkatu efizienteagoak eta berritzaileagoak lortzera bideratzen da beti. Horrez gain, arreta berezia jartzen da ekonomiaren gaineko araudien kalitatean, ez dadin sartu justifikatu gabea, proportzionaltasunik gabea edo diskriminatzailea den oztoporik.

Sustapen-lana oso malgua da, eta tresna ugari erabiltzeko aukera ematen du, hala nola sektore ekonomikoari buruzko txostenak, administrazio

publikoari egindako gomendioak, kontsulten ebazpena, gidak edo azterlanak, prestakuntza edo prentsa-oharrak. Garrantzi berezia dute, halaber, arauen txostenek, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan arauen aurka jotzea ekar baitezake, hala badagokio.

2020rako, LEA/AVCk zenbait ekintza planifikatu zituen: EAEko sektore ekonomiko adierazgarriari buruzko azterlanak egitea; administrazio-erregulazioari buruzko gida bat egitea lehiaren eta erregulazio onaren ikuspegitik; kontratazio txikiaren erabilera aztertzea; EAEko kontratazio-organoek lehiari buruzko araudia nola aplikatzen duten ebaluatzea; eta unibertsitateekin, ikastetxeekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

Horrela, guztira, lehia sustatzeko 76 espedientetan lan egin da, eta horietatik % 10 baino gehiago koronabirusarekin lotuta egon dira, hau da, 21 sustapen-txosten. Sustapeneko espedienteen artean, berritasunagatik, honako hauek nabarmentzen dira: neutraltasun teknologikoarekin lotutako gaiak, lankidetzara publiko-pribatuari buruzko azterlana, EAEn gidaridun ibilgailuen errentamendua arautzen duen


Dekretuaren aurkaratzea, eta "EAEko erregulazio ekonomikoaren hobekuntzari buruzko azterlana".

2020an, malgutasuna eta berehalakotasuna funtsezkoak izan dira LEA/AVCren jardueran, COVID-19aren pandemiak merkatuetan sortu duen egoeraren aurrean. Izan ere, ziurgabetasun ekonomiko eta arautzaile handiaren ondorioz, kasu


batzuetan beharrezkoa izan da arauak argitzea; hartara, segurtasun juridiko handiagoa eman zaie enpresei lehiaren aurkako balizko oztopoen aurrean.

Txosten horien zati handi batek -% 50 inguruk- Administrazioaren jardura izan du xede, zuzenean edo zeharka, bai arauen aldetik, bai ondasun eta zerbitzuen eskuratzailerik gisa.

Sustapena: Jarduketak (Kopurua)



Sustapena: jarduerak arloaren arabera



2

Lehia sustatzea COVID-19aren garaietan

2.1 Pandemian zehar enpresekin sinatutako lankidetzak-akordioei buruzko informazioa



<https://www.youtube.com/watch?v=snZloTBhOZE>

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (LDL), 1. artikuluan, debekatu egiten du "du *taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea*". 2020ko apirilaren 8an, pandemiaren ondorioz funtsezko produktu batzuen hornikuntzan eskasia edo gabezia zegoenez, Europako Batzordeak honako komunikazioa igorri zuen: "Enpresen lankidetzarekin lotutako lehiaren defentsarako gaiak ebaluatzeko aldi baterako esparrua, COVID-19aren egungo agerraldiak eragindako larrialdi-egoerei erantzuteko" (EBAO 2020/C 116 I/02).

La Autoridad Vasca de la Competencia estudia posibles precios abusivos en aquellos sectores con un incremento de demanda por el estado de alarma

- 01 Utilizará sus medios personales y materiales y colaborará con Kontsumobide a fin de comprobar si se producen comportamientos de los operadores prohibidos por la Ley de Defensa de la Competencia
- 02 La vigilancia de conductas que pudieran reputarse como prohibidas se hace aun más necesaria ante la pandemia por el Covid-19, máxime si pueden afectar a bienes y servicios esenciales para la protección de la salud y seguridad de los consumidores
- 03 La Autoridad Vasca de la Competencia en esas últimas semanas ha recibido numerosas reclamaciones y para ello dispone de un correo electrónico (infocompetencia@avdc.eus), para que aquellas personas o entidades que se sientan afectadas puedan hacer llegar sus quejas y denuncias.
- 04 Se pretende perseguir el incremento de precios en bienes o servicios esenciales como geles desinfectantes o cualquier tipo de producto sanitario que sea esencial para evitar contagios del virus Covid-19.
- 05 La Autoridad Vasca de la Competencia desea advertir que la Ley de Defensa de la Competencia prohíbe conductas abusivas o pactos entre los operadores económicos que alteren el funcionamiento del mercado.

Lehiaren Erakul Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

PIKTOCHART

Komunikazio horrek berariaz ezartzen du sektore batzuetako enpresa-akordio batzuk zer irizpidetan egon zitezkeen legezkotasunaren barruan, behin-behinean, pandemian zehar funtsezko produktu eta zerbitzuen eskasiari aurre egiteko funtsezko produktu edo zerbitzuekin lotuta. Hala, komunikazioak honako baldintza hauek ezartzen ditu: beharizanaren eta proportzionaltasunaren irizpideak bete behar dira; behin-behinekoa eta hirugarrenei irekia izan behar da; lehiakideekiko sentikorra den informazioa ez trukatzeko neurriak aurreikusi behar ditu; eta enpresa-akordio horiek dokumentatu egin behar dira.

LEA/AVCK informazioa bidali zien CONFEBASK, ADEGI, CEBEK, SEA eta merkataritza-ganberei, informazio hori beren enpresa elkartuei helaraz ziezaieten, bai eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ekonomia-ren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailari ere.

Gainera, LEA/AVCK enpresa-lankidetzako proiektu espezifikoko kontsultatzeko aukera eskaini zien eragile ekonomikoiei, bere webgunearen eta prentsa-ohar baten bidez.

Hala, LEA/AVCK segurtasun juridikoa eman nahi izan zien alarma-egoeraren esparruan lankidetzako proiektuak lortu edo negoziatu zituzten euskal enpresei.

2.2 COVID-19 txostenak

2.2.1 Elikadura-establezimenduen irekiera alarma-egoeran zehar

LEA/AVCK zenbait merkataritza-establezimenduen nahitaezko itxierari buruzko kegak jaso zituen. Merkataritza-jardueraren esparruan ezarritako euste-neurriak betetzeko itxi ziren establezimenduak. Neurri horiek, zehazki, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarrita daude (Alarma-egoera ED).

Zehazki, "gozogintzako produktuak eta gozokiak merkaturatzeko" lokalak ziren mintzagaiak. Bertan, izan ere, indar jardulearen ustez, "ez da premia biziko produkturik ematen".

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2020ko apirilaren 8an egindako bileran, ondorioztatu zuen gozogintzako produktuak eta gozokiak saltzen zituzten lokalak elikadurako txikizkako establezimenduak zirela ondorio guztietarako, bai estatistikoetarako, bai fiskaletarako; beraz, Alarma-egoera EDren 10.1. artikuluan adierazitako salbuespenaren barruan sartzen zirela ulertu behar zen, eta, bestelako arrazoirik ezean, ez zen horien jarduera eragotzi behar.



2.2.2 Alarma-egoeran konfinamendua arintzeko I. fasean merkataritzako eskaintzak debekatzeari buruz

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko maiatzaren 11n, txosten bat onartu zuen COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren eremuan normaltasun berri batera igarotzeko Planaren (Konfinamendua arintzeko Plana) I. fasean merkataritzako eskaintzak debekatzeari buruz.

Txosten horretan, honako hau ondorioztatu zuen Lehiaren Euskal Kontseiluak:

Establezimendu fisikoa duen saltoki txikiari merkataritza-ekintzak edo publizitate-ekintzak egitea debekatzeko bazea konfinamendua arintzeko I. fasean, neurrigabeko muga ezartzen da, kontuan hartuta badaudela beste neurri batzuk, ez hain murriztaileak, arauaren azken helburua lortzea ahalbidetzen dutenak.

Neurriak justifikaziorik gabe mugatzen du enpresa-askatasuna (Espainiako Konstituzioaren 38. artikulua) eta, zehazki, merkataritzan jarduteko askatasuna (Txikizkako Merkataritza Antolatzearen 15eko 7/1996 Legearen 3. artikulua).

Online merkataritzan merkataritza-ekintzak eta publizitate-ekintzak egiteko aukera ezartzen bada, eta establezimendu fisikoa duen merkataritzan, berriz, ekintza horiek debekatzeko badira, inolako justifikaziorik ez duen diskriminazioa sortzen da.

Neurri diskriminatzaileak txikizkako merkataritza lehiapozizio eskasean jartzen du, eta horrek enpresa-askatasuna urratzen du (EKren 38. artikulua) eta, horrekin batera, merkataritzan askatasunez aritzeko eskubidea ere urratzen du (TMLren 3. artikulua).

2.2.3 Alarma-egoera arintzeko II. fasean azokak berriro irekitzea

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko ekainaren 3an, txosten bat egin zuen COVID-19ak eragindako



osasun-krisiaren eremuan normaltasun berri batera igarotzeko Planaren (Konfinamendua arintzeko Plana) II. fasean azoka txikiak berriz ere irekitzeari buruz. Txosten horrek honako gomendio hauek egin zituen:

Osasun publikoa babesteko, beharrezkoa da jendearen pilaketak saihestea, pandemiak berezkoa duen kutsatze-arriskua eragozteko.

Azoka txikiak deiturikoen kasuan, udalei dagokie mota horretako azokak berriro irekitzeko erabakia hartzea, bai eta merkataritza-jardueraren garapenean merkatarien, langileen, kontsumitzaileen eta bisitarien osasuna babesteko beharrezkoak diren neurriak ezartzea ere. Bestela, merkatariek enpresa askerako eta merkataritza-askatasunerako duten eskubidea mugatu liteke.

Azoka ibiltariak berriz irekitzeko baldintzek interes orokorreko arazoietan oinarrituta egon behar dute, proportzionalak izan behar dute eta ezin dira diskriminatzaileak izan.

SND 411/2020 Aginduak baldintzak ezartzen ditu udalek azoka ibiltariei berrekin diezaieten konfinamendua arintzeko 2. fasean, eta, era berean, salmenta-postuen eta edukieren mugak arintzeko neurriak hartzeko aukera ematen du.

Merkatu ibiltariak berriro irekitzeko udalek eskatzen dituzten neurriak proportzionalak izan beharko dute merkatarien, langileen, kontsumitzaileen eta bisitarien osasuna bermatuta gera dadin.

Azokako postuen % 30eko muga konpentsatu egin daiteke, baldin eta udalak azoka garatzen den espazioa handitzeko/aldatzeko neurriak ezartzen baditu eta/edo azoka egiteko beste egun batzuk jartzen badira. Beraz, hori posible bada, aukera hori baliatu beharko da, merkatarientzat kalte gutxien eragiten duena delako, osasun-bermeak murriztu gabe.

Udalak elikagaien edota antzeko ekoizleen artean merkataritza-baldintza desberdinak ezarriko balitu elikagaien eta/edo lehen mailako produktuen azoka ibiltariak berriro irekitzeko baimena ematerakoan, ordenamendu juridikoaren aurkako diskriminazioa izango litzateke.

2.2.4 COVID-19a eta elikagai freskoak

COVID-19aren birusak eragindako pandemiari eusteko beharrak alarma-egoera deklaratu zuen 25 astez, eta, horren ondorioz, besteak beste, biztanleria konfi-

natu eta jarduera ekonomikoaren zati handi bat eten egin zen.

Testuinguru horretan, elikagaien prezioek gora egin zuten, batez ere produktu freskoen prezioek, KPI orokorraren oso gainetik (azken hori ehuneko negati-boetan kokatu zen).

Pandemiak sortutako salbuespenezko egoeran, beharrezkoagoa bihurtu zen lehiaren arloan debekatutzat jo daitezkeen jokabideak zaintzea, are gehiago kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko funtsezkoak diren ondasunei eta zerbitzuei eragiten zieten. Horren adibide dira, besteak beste, elikadura eta, zehazki, produktu freskoak, dieta osasuntsurako funtsezkoak direnak.

Horregatik, azaroaren 20ko txostenean, Lehiaren Euskal Kontseiluak berariaz aztertu zuen MERCABILBAO izeneko handizkako azokan gehien saltzen diren elikagai galkorrek 35 astetan izandako prezioen eta saldutako kopuruen bilakaera: txibi izoztua, arrautzak, esnea, laranja, legatza, muskuilua, patata eta banana. Gainera, ikerketan antxoia ere sartu zen. Izan ere, komunikabideetan salatu zenez, jatorrizko prezioak jaitsi ziren arren kontsumitzaileei ez zitzairen horren berri eman.

Nolanahi ere, prezioen eraketak produktu freskoen merkatu bakoitzean indarrean dauden lehia-dinamikei erantzun behar die beti, salbuespenak salbuespen. Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Tratatuak, esaterako, zenbait kasutan salbuespenak ezarri ditu, nekazaritza-politika bateratuaren funtzionamendua betetzen dela eta helburuak lortzen direla bermatzeko.

2.3 Sustapena, prebentziorako ekintza

LEA/AVCk hainbat sustapen-ekintza egin zituen Bilboko Portuko zamaketaren gatazkan, lehia murrizten duen eta zehapena jaso dezakeen jarduerarik egon ez zedin.

2.3.1 Zamaketa: legezko grebaren aurre-abisua abuztuan

Uztailaren amaieran, LEA/AVCk jakin zuen zenbait sindikatuk legezko grebaren aurre-abisu bat aurkeztu zutela. Greba horrek, Bilboko Portu Autonomoan salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzuak eta/edo merkataritza-zerbitzuak egiten zituzten zamalanetako enpresa guztiei eta Sociedad de estiba y desestiba



del Puerto de Bilbao, CPE (Bilboestiba) sozietateari eragiten zien, oso-osorik, eta abuztuaren 8tik 28ra bitarterako deitu zen.

Albiste horren aurrean, LEA/AVCk komunikazio bat bidali zien Bilboko Portuko zamaketarien lau sindikatuari, honako hau eskatzeko: beren jarduera "langileen lan-eskubideen defentsan sar dadila, lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu dezaketen gaiei eragin gabe".

Langileen lan-baldintzak defendatzeko orduan sindikatuak duten eginkizuna erabat errespetatuz egin zen eskaera hori, grebarako deialdia egiteko alegatutako arrazoiak baloratu gabe. Hala, eskaera horretan, LEA/AVCk Estatuko eta EBko auzitegien doktrinarekin bat etorri, honako hau zehaztu zuen: enpresen eta langileen ordezkarien arteko hitzarmen kolektiboak ez zirela automatikoki kanpo geratzen lehia-arauak aplikatuz, ez eta zerbitzuak libreki ezarri eta emateari buruzko EBFTren arauak aplikatuz ere.

Halaber, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua (lehiaren aurkakoak diren eta debekatuta dauden jokabideak adierazten ditu artikulua horrek), LEA/AVCk gogorarazi zuen 2016an boikot gisa hartu zela eta, ondorioz, zigortu egin zela Bilboko Portuko garraiolari autonomoen elkarte batek egindako greba-deialdia, ontzi-enpresa jakin bati zerbitzuak ez ematekoa. Auzitegi Gorenak zehapen hori berretsi zuen.

Azkenean, grebaren deialdia bertan behera geratu zen.

2.3.2 Zamaketa: legezko grebaren aurre-abisua urrian

Urrian, LEA/AVCk jakin zuen beste aurre-abisu bat aurkeztu zela legezko grebarako, urriaren 9tik 25era bitartean. Aurrekoei lotutako salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzuak eta/edo merkataritza-zerbitzuak

egiten zituzten zamaketarien enpresa guztiei eragiten zien aurre-abisuak, hots, bai portuko zamaketariak egindakoei, bai zamaketari-lanekin eta Bilbaoestibaren lanarekin lotuta salgaiak manipulatzeko portu-zerbitzuak eta/edo merkataritza-zerbitzuak edo/eta merkataritza-zerbitzu osagarriak egiten zituen beste edozein langilek egindakoei.

Abuztuan bertan behera utzitako grebak ez bezala, grebarako aurre-abisu horrek ez zien soilik zamaketari lanei eragiten; aitzitik, zamaketa-eremutik kanpoko beste merkataritza-zerbitzu eta langile batzuei ere eragiten zien. Horrek, nola ez, ondorio garrantzitsuak izan zitzaizkeen lehiaren ikuspuntutik.

Ondorioz, LEA/AVC harremanetan jarri zen Bilboko Portuko zamaketarien bost sindikatuekin –ELA, KAIA B.E.S., LAB, Coordinadora (OUTPB) eta UGT–, honako hau eskatzeko: beren jarduera langileen lan-eskubideen defentsan sar zedila, lehia eragotzi, murriztu edo faltsutu dezaketen gaiei eragin gabe.

Aurreko aldian bezala, langileen lan-baldintzak defendatzeko orduan sindikatuek duten eginkizuna erabat errespetatzen zela abiapuntutzat hartuta, eta grebarako deialdia egiteko alegatutako arrazoiak baloratzen hasi gabe, LEA/AVCk Estatuko eta EBko auzitegien doktrina errepikatu zuen, zeinaren arabera ezin baitira lehiaren arauak aplikatuzetik automatikoki kanpo geratu enpresen ordezkarien eta langileen arteko hitzarmen kolektiboak. Halaber, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua harira (lehiaren kontrakoak diren eta, beraz, debekatuta dauden jokabideak adierazten dira bertan), zehatuta jardunbide batzuk zerrendatu zituen.

2.3.3 Zamaketa: Lehia-agintaritzen eta ordezkarien arteko bilera

Urriaren 26tik azaroaren 9rako beste greba-deialdi bat egin zenez, LEA/AVCk, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin (MLBN) batera, bilera bat deitu zuen eskura zegoen informazioa aztertzeko, Bilboko Portuaren egoera kezkarria zela ikusita.

Hala, urriaren 25ean, LEA/AVCk bilera bat egin zuen Bilboko Portuko Agintaritzarekin eta Bilboestibarekin, eta, bertan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ere parte hartu zuen, bideokonferentzia bidez.

Bileran, portuko zamaketaren sektoreko lan-harremanak arautzeko V. Esparru Akordioa onartzearen garrantzia azpimarratu zen, eta, beraz, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak horri buruzko txosten bat prestatu zuen. Akordio hori indarrean jartzeak

segurtasun juridiko handiagoa ekarriko luke, bai eta lan-hitzarmena negoziatzeko esparru juridiko bat ere, kontuan hartuta horixe dela Bilboko Portuko gatazka-ren jatorria.

2.4 Administrazio-mailako araudia eta erregulazioa

2.4.1 Euskal Autonomia Erkidegoan saltokiak jaiegunetan irekitzea

Lehiaren Euskal Kontseiluak txosten bat onartu zuen 2020ko urtarrilaren 10ean, EAEn saltokiak jaiegunetan irekitzearen egoera juridikoari buruz. Bertan, honako hau ondorioztatu zuen:

Enpresa-askatasuna eskubide konstituzionala da, eta, bertan, jarduera ekonomikoa eskuratzeko, garatzeko eta bertan behera uzteko eskubidea sartzen da.

Txikizkako merkataritzaren esparruko enpresa-askatasunerako eskubidea izateak berekin dakar jaiegunetan irekitzeko askatasun osoa izatea, enpresaburuak egunean edo astean zenbat ordutan jardungo duen ezarrita.

Gutxienez hamasei egunetan ireki beharko da saltokia, baina kopuru hori autonomia-erkidegoek aldatu ahal izango dute: gorantz, edo hamar egunera mugatuta. EAEk ez du inolako aldaketarik egin, eta, beraz, saltokiak jaiegunetan zenbat egunetan ireki daitezkeen ezartzean, Merkataritza Ordutegiei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legeak ezartzen duena beteko da. Hots, 16 jaiegunetan irekiko da, gutxienez.

Saltokiak jaiegunetan irekitzeko aukera hori enpresaren askatasunarekin dago lotuta. Merkatariak, bere inguruabarren arabera, bere establezimendua irekitzeko edo ez irekitzeko eta irekiera-ordutegia ezartzeko erabakia askatasunez hartzeko aukera izan behar du.

Ondorio horiek kontuak hartuta, LEA/AVCk honako hau gomendatu zuen:

dendari bakoitzak, batez ere denda txikiek, beren establezimendua irekitzeko egunei eta ordutegiei buruz erabakitzeke duten askatasun osoa bermatzea.

EAEn indarrean dagoen araudi autonomikoa egokitzeta, horrek saltoki txikien babes handitzen lagunduko bailuke.

2.4.2 Bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretu Proiektua

2020ko otsailaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioaren eta Administrazio Erregistroen Zuzendaritzak txosten bat eskatu zion LEA/AVCri, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egindako Bidaia Agentzien Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Dekretu Proiektuari buruz.

Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuaren erreforma, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/2302 (EB) Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora pasatzearen ondorio zen. Izan ere, bidaia-agentziek eskaintzen duten bermeak eraginkorra eta mugagabea izan behar du, eta gordailututako funts guztiak mugarik gabe, gehiegizko izapiderik gabe eta doan itzuli behar ditu.

1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak, 164.1. eta 167.1. artikuluetan, autonomia-erkidegoetako erkidego eskudunei esku hartzeko deia egiten die, kaudimen-gabeziagatiko finantza-bermeak osatzeko. Hori dela eta, Lehiaren Euskal Kontseiluak proiektuaren aldeko txostena onartu zuen 2020ko otsailaren 28an, ex lege betebeharra zelako eta lehia askean eraginik ez zuelako.

2.4.3 Turismo-arrantzaren Dekretu Proiektua

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak LEA/AVCri txostena eskatu zion Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari eta arrantza-erakustaldiei buruzko Dekretu Proiektuaren gainean.

Dekretu Proiektuaren xedea zen, arrantza-sektoreko jarduera osagarri gisa, arrantza-turismoa, arrantza-erakustaldiak eta arrantza- edo itsas turismoa arautzea, hots, itsas arrantzarekin eta akuikulturarekin guztiz edo partzialki lotutako jarduerak, arrantza-sektorea osatzen duten pertsonen errentak hobetzeko edo osatzeko.

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko uztailaren 28ko bileran, Dekretu Proiektu horren aldeko txostena eman zuen. Hala ere, legezketasunera egokitzeko, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 94/2020 Irizpenean adierazitakoaren ildotik, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau berretsi zuen: arrantzako edozein profesionali arrantzaren jarduera osagarri hori egiteko baimena ematen zaion bezala, hori ere Dekretuan birbideratu behar zela, gaitutako pertsonak zuzenean erauzketa-lizentzien titularrak izan zitezten —armadoreak—. Edonola ere, ez zen galaraziko aipatutako erakundeekin merkataritzako edo lankidetzarako harremanak edukitzeko aukera.

2.4.4 Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2020 Legea aldatzen duen Legearen Aurreproiektuaren zirriborroaren gaineko alegazioak

Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioko Politika Ekonomikoaren Zuzendaritza Nagusiak Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea aldatzeko Lege Aurreproiektuaren (aurrerantzean, Lege Aurreproiektua) zirriborroari buruzko entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak hasi zituen.



Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko irailaren 15ean egindako bileran, Lege Aurreproiektuari honako alegazio hauek aurkeztea erabaki zuen, jarraian azaltzen diren gaitan:

- lehiaren defentsa-sistema Espainian; horren arabera, Lehia Koordinatzeko Legea Lehiaren Defentsari buruzko Legean sartzea eskatzen da, koordinazio-irizpideak bateratzeko eta hobetzeko asmoz. Gainera, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak egokitu egin behar du Estatuan lehiaren zuzenbidea aplikatzeko orduan dagoen errealitate instituzional eta deszentralizatura, bai eta merkatu globalen eta digitalen egungo testuingurura ere.

Hala, defentsa-gai bat agintaritzza autonomiko bati edo MLBNri ote dagokion ebatzeko erabilitako lurraldetasun-irizpidea gainditutzat jotzen da, eta, azken batean, autonomiaz gaindiko afekzio-maila zehazteko irizpide objektiboak (mugak edo ehunekoak) ezartzearen alde egiten da, baita gai bat ezagutzeko autoritaterik onena nor den zehazteko ere, arrazionaltasun-eta eraginkortasun-mekanismoen arabera.

- kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozedura; gai hori dagokion agintaritzza autonomikoari helaraztea proposatzen da, aurreikusitako prozeduraren bi faseetan txostena egin dezan (eta ez bigarren fasean bakarrik, gaur egun gertatzen den bezala); izan ere, kontzentrazio-eragiketa batek autonomia-erkidego jakin baten eremuan duen eragina independentea da ebatzen duen prozeduraren fasearekiko.
- laguntza publikoak; gaur egun Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 11.5. artikuluan aurreikusitakoa nahitaezkoa izatea eta Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 11.2. artikuluan sartzea proposatzen da; izan ere, dagoen sistema deszentralizatuaren arabera, agintaritzza autonomiko bakoitzak bere lurraldeari dagokion informazioa eman beharko luke.
- EBFTren 101. eta 102. artikuluen aplikazioa; lehiaren agintaritzza autonomikoek horiek aplikatu ahal izatea proposatzen da, EBren zuzenbidearen ikuspegitik ez baitago horretarako inolako oztoporik.
- jurisdikzio-organoekiko lankidetzaz; legezko aldaketa egokiak egitea proposatzen da, lankidetzaz hori eraginkorra izan dadin; izan ere, gaur egun, jurisdikzio-organoek informatzeko dituzten betebeharrak ez dira lehia-agintaritzza autonomikoen kasurako aurreikusten.

2.4.5 Deba udalerriko hirigintza-araudia eta horrek erabilera turistikoko etxebizitzetan edo erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletan ostatu emateko jardura ekonomikoetan dituen ondorioak

Partikular batek kexa bat bidali zion LEA/AVCri, honako hau adierazteko: Debako Udalaren arabera, erabilera turistikoko etxebizitzaren jardura ekonomikoak tokiko hirigintza-araudia urratzen zuen eta, ondorioz, kontrako txostena egin zuen, nahitaezkoa eta loteslea. Horregatik, Eusko Jaurlaritzza Debako etxebizitzaren jardura turistikoa etetea eta Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroko inskripzioa ezeztatzea ebatzen ari zen.

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko azaroaren 20ko bileran, txosten bat onartu zuen, Debako udalerriko hirigintza-araudiari buruzkoa, bai eta araudi horrek erabilera turistikoko etxebizitzetan edo erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletan ostatu emateko jardura ekonomikoetan dituen ondorioei buruzkoa ere. Txosten horretan ondorioztatzen zenez, Debako hirigintza-araudiak —bereziki, Debako 2007ko udal-plangintzako arau subsidiarioen berrikuspenaren testu bateginak— ezartzen dituen sarrerako barrerak ez dira ez beharrezkoak ez proportzionalak erabilera turistikoko etxebizitzetan edo erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletan ostatua emateko jardura ekonomikoak egiteko; izan ere, Hotelgintzarekin lotutako Hirugarren Sektoreko Erabilera horrek —testu bateginean aurreikusitak— ez ditu barne hartzen aipatutako jardura ekonomikoak.

Hori dela eta, LEA/AVCk Debako Udalari eskatu zion udal-plangintzako arau subsidiarioen berrikuspenaren testu bategina alda zezala, halako moldez non jaso eta baimendu egingo baitzen erabilera turistikoko etxebizitzetan edo erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logeletan ostatua emateko jardura ekonomikoak egiteko aukera, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legean eta erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logelei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.

2.5 Elkargo profesionalak

2.5.1 Gipuzkoako Industri Ingeniariei Elkargo Ofizialaren estatutuak: estatutuen aldaketa onartzeko aginduaren aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoari buruzko txostenak

2019ko uztailaren 24an, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioaren eta Administrazio Erregistroen Zu-

zendaritzaren eskaeran oinarrituta, Lehiaren Euskal Kontseiluak Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargoaren Estatutuei buruzko txostena egin zuen.

2020ko urtarrilaren 28an argitaratu zen urriaren 28ko Agindua, aipatutako Industri Ingeniarien Elkargoaren Estatutuen aldaketa onartzen duena, eta horren aurka aukerako hiru berraztertze-errekurtso jarri ziren. Toki Administrazioa eta Administrazio Erregistroetako Sailak, orduan, aurkeztutako hiru errekurtsoei buruzko txostenak eskatu zizkion LEA/AVCri.

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko martxoaren 30eko bileran, hiru txosten onartu zituen Gipuzkoako Industri Ingeniarien Elkargoaren Estatutuei jarritako errekurtsoei buruz.

2.6 Kontratazio publikoa

2.6.1 Merkatu eta azoketako saltokiak esleitzea (gizarte- eta ingurumen-irizpideak)

2018an eta 2019an egindako txostenen arabera, LEA/AVCk gomendioak egin zizkien toki-administrazioei merkatu eta azoketako saltokiak esleitzean publikitatearen, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren, gardentasunaren eta norgehiagokaren printzipioak errespetatu zitezien. Ondoren, 2020ko martxoaren 30ean, Lehiaren Euskal Kontseiluak beste txosten bat onartu zuen tokiko merkatu eta azoketako saltokien esleipenean lehenetsi behar diren gizarte- eta ingurumen-irizpideei buruz.

Txosten horrek ondorioztatzen du berebiziko garrantzia duela merkatu edo azoka bakoitzaren xedea behar bezala definitzeak, gizarte- eta ingurumen-irizpideak barne, gainerako politika publikoak kontuan hartuta.

2.6.2 Arratzuko Udalak Uarka-Loiolan bidegorri bat eraikitzekeo deitutako lizitazio-pleguak

Enpresa lizitatzailerak LEA/AVCri jakinarazi zionez, Arratzuko Udalak bidegorri bat eraikitzekeo deitutako lizitazioaren pleguetan (B914-2020-00003 lizitazioa) honako hauek ezarri ziren esleipen-irizpideen artean: "Udalerrian egindako lanak" (gehienez 10 puntu) eta "Ingurumen-eraginaren murrizketa handiagooa, enpresaren egoitza udalerritik gertu egotearen ondorioz isuriak gutxitzeagatik" (gehienez 25 puntu).

Lehiaren Euskal Kontseiluak 2020ko irailaren 15eko txostenean ondorioztatu zuenez, Arratzuko Udalak, behar bezala justifikatu ezean, esleipen-irizpide

horiek lizitazio-pleguetatik ezabatu behar zituen, hurbileko enpresei abantaila justifikatu gabea ematen zirela.

Izan ere, aipatutako esleipen-irizpideek ez zuten lizitazioan sartzeko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatzen. Gainera, ez ziren proportzionalak kontratuaren xedearekiko.

Arratzuko Udalak lizitazioan atzera egin zuen 2020ko urriaren 15ean.

2.6.3 Kontratazio txikia Debako Udalean

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko martxoaren 30eko Ebazpenean, LEA/AVC-337-SAN-2020 (Debako hilerria) zehapen-espeditentea artxibatu zuen, Lehiaren Defentsari buruzko Legea hautsi izanaren zantzurik ez zegoelako. Hala ere, kontratazio txikiko praktikek lehia askea oztopatu zezaketela ikusi zuen Lehiaren Euskal Kontseiluak. Hori dela eta, bere sustapen-eginkizunen esparruan, Debako Udalaren kontratazio txikiari buruzko txosten bat onartu zen 2020ko maiatzaren 27an.

Txosten horretan, LEA/AVCk ondorioztatzen du Udalak arkitektura-zerbitzuak kontratatzekeo aurreikus zitezkeen beharren plangintza egokia egin behar zuela, tokiko korporazioaren esperientzia eta beharren historia kontuan hartuta. Hala, Lehiaren Euskal Kontseiluak adierazi zuen, kontratazio publikoaren esparruan, Udalak lehia askerako oztopoak saihestu behar zituela, kontratazio txikia behar ez bezala erabiliz.

Horretarako, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau gomendatu zion Debako Udalari:

- Aurrekontu-ekitaldian udalaren kontratu-jardura planifikatzea eta programatzea, kontratu txikia prestazio errepikakorretarako edo aurreikusteko modukoetarako erabil ez dadin.



- SPKLn kontratuak esleitzeko ezarritako prozedura arruntak erabiltzea prestazio errepikakorrek eta aurreikusteko moduak betetzeko, zenbateko txikiagoekin bada ere.
- Kontratu txikia premiazko prestazioetarako erabiltzea (ez prestazio errepikakorretarako edo aurreikusteko modukoetarako), SPKLn 118. artikuluan ezarritako baldintzetan.
- Kontratu txikietan lehia sustatzea, eta, horretarako, hiru aurrekontu eskatu eta aurrekontuok espedientean sartzea.
- Kontratatzailearen profilean hiru hilean behin argitaratzea 5.000 euroko edo hortik gorako balio zenbatetsia duten kontratu txiki guztiak, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, esleipenaren zenbatekoa eta esleipenduna.

Lehia sustatzeko jarduera hori LEA/AVCk kontratazio txikiaren erabilera aztertzeke hartutako konpromisoaren barruan sartu zen, eta 2020ko Ekintza Planean jasotako jarduera da.

2.7. Enpresa-kontzentrazioak

2.7.1 EAEko enpresen partaidetza duten enpresa-kontzentrazioei buruzko txostena

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko uztailaren 28ko bileran, bere bigarren txostena onartu zuen, MLBNk baimendu zituen eta EAEko enpresen partaidetza zuten kontzentrazio-eragiketei buruz.

Enpresa-kontzentrazioen kontrolari dagokionez, egungo legeriak –Europakoak zein Estatukoak– ezarzen duenez, eragiketa aldeztatik jakinarazi eta onartu behar da, atalase batzuk gainditzin direnean. Lehiaren Defentsari buruzko Legeak aurreikusten duenez, eragiketaren eraginpeko lehia-agintaritzza autonomikoei kontsultarako esku-hartzea egin dezakete, baina soilik lehen fasean baimentzen ez diren eta prozeduraren bigarren fasean aztertu behar diren eragiketetan.

Hala, 2014-2020 aldirian, MLBNk guztira 554 kontzentrazio-eragiketa baimendu ditu. Baimendutako eragiketetatik 54tan EAEko enpresek parte hartu dute, hau da, guztien % 9,75etan. Horiek guztiak lehen fasean onartu ziren, eta horietako bik konpromisoak hartu zituzten.

LEA/AVCk uste du kontzentrazio-eragiketa batek autonomia-erkidego jakin baten eremuan duen era-


gina independentea dela ebatzen den prozeduraren fasearekiko; beraz, bere ustez, dagokion agintaritzza autonomikoari eman beharko litzaioke horren berri, prozeduraren bi faseetako edozeinetan txosten bat egin dezan.

2.8 Lehiaren arloko Compliance-a

2.8.1 Lehiaren Compliance-ari buruzko UNE arau bat egitea

2019an Lehiaren alorrean betetze-programak ezartzeko gidaliburua argitaratu ondoren (Estatuan gai horri buruz egindako lehen gida), LEA/AVCk 2020an ekin zion Espainiako Normalizazio Elkartearen (UNE) aurrean lehiaren arloko compliance-a kudeatzeko sistemen estandar bat sustatzeko proiektuari, bere sustapen-funtzioa betez. UNE Arau bat egitea baliagarria izango litzateke erakundeei lehia-arriskuak prebenitzen eta kudeatzen laguntzeko, eta, hala badagokio, isun handiak, zuzendariei jarritako zigorrak eta kontratatzeke debekuak saihesteko.

2020ko urriaren 8an, LEA/AVCk eta UNEk informazio-saio bat egin zuten. Saio horretan, gutxi gorabehera



165 erakunde bildu ziren telematikoki, eta, bertan, 2021ean lehiaren compliance-ari buruzko araua egiteko lantaldea eratzeko proiektua eta mugarrak ezagutarazi ziren.

2.8.2 Espainiako Compliance Elkarte (ASCOM)

LEA/AVCk Espainiako Compliance Elkartearen (ASCOM) Sektore Publikoko Compliance-ari buruzko lantaldean parte hartu du. Lantalde hori interes komun sendo eta aktiboa duten profesionalak osatzen dute, compliance-funtzioa sektore publikoko erakundeetan garatu eta finkatzeko izaera propioarekin. Talde honetan, compliance-arekin zerikusia duten eta kudeaketaren eta zerbitzu publikoen esparruan oinarritzen diren alderdiei buruzko solasaldia, azterketa, hausnarketa eta eztabaida sustatzen dira.

Gainera, bi sarrera egin dira ASCOMen blogean, horretan laguntzeko: "Compliance lehia askearen arloan: sektore publikoaren kasua": horietako lehenengoan, Administrazioa jorratzen da [eragile ekonomiko](#) gisa (enpresa publikoak), eta bigarrean, aldiz, "[administrazio orokor](#)" gisa duten zeregina aztertzen da.

2.9 Neutraltasun teknologikoa

2.9.1 Bilboko Udalaren aparkaleku arautua eta aparkatzeko aplikazioak

2015ean, Bilboko Udalak "Bilboko TAO Ordenantza betetzen dela zuzenean kontrolatzeko zerbitzua eta TAO sistemaren erabiltzaileentzako zerbitzu osagarriak" kontratatuzko lizitazioa deitu zuen (2015-054145 espedientea).

Lizitazio horretan, baldintza zehatzak ezartzen ziren enpresa esleipendunak telefono mugikorren bidezko ordainketa-sistemaren aplikazio publiko ofizialaren bidez kudea zitzan bai aparkaleku publikoa bai kobrantza-sistema. Kontratua 2016ko ekainaren 24an esleitu zen.

Baldintza teknikoaren agiriaren arabera (esleipendunak hornitu beharreko sistema-errekimenduei buruzko atala), honako baldintza hauek ezarri ziren: "...-Kontrol Zentroa diseinatzean kontuan hartu beharko dira: Beharrezkoak diren mekanismoak, hirugarrenek lurrazaleko aparkalekuen ordainketa-zerbitzuak eskaintzeko eskaintzen dituzten aplikazioekin integratze aldera".

EASYPARK ESPAÑA, S.L.U.k —terminal mugikorretan instalatzen diren aplikazioen bidez aparkaleku

arautuak ordaintzeko zerbitzuak ematen dituen enpresak— udalerrian zerbitzuak eskaini ahal izateko beharrezkoa dena izan zezatela eskatu zion Udalari. Hala eta guztiz ere, Udalak ez zuen enpresa horrek eskatutako sarbidea ahalbidetu, ez eskaera horren ondoren, ez geroagoko eskaeren ondoren.

Egoera horren aurrean, enpresak LEA/AVCri eskatu zion Udalarekin esku har zezala eta ohartarazi ziezaiola app teknologiko enpresei modu irekian eskaini behar zela zerbitzua emateko behar den eskuragarritasun teknikoa, udalarekin batera.

LEA/AVCk hainbat sustapen-jarduera egin zituen beste eragile batzuei Bilbon aparkaleku arautuko guneen kobrantza/ordainketa kudeatzeko zerbitzura sartzeko aukera emateko. Azkenean, Bilboko Udalak eta merkatuan dauden eragileetako bik bi hitzarmen sinatu zituzten.

Hitzarmen horiek formalizatzean, bi lehiakide berri sartu dira merkatuan zerbitzuaren emakidadunaren aurrean (hasiera batean hornitzaile bakarra zen). Beraz, horrek esan nahi du Administrazio Publikoak uneoro zaindu behar duen neutraltasun lehiakorra bermatu dela.

Hala, LEA/AVCk amaitutzat eman zituen jarduerak, bere helburuak bete ostean: batetik, zerbitzuaren zergadun-emakidadunaren monopolioa haustea; bestetik, merkatu horretako sarrerako barrerak kentzea; eta, azkenik, Bilboko Udalaren neutraltasun teknologikoa bermatzea.

2.9.2 Justizia Telematikoa (JustiziaSIP)

Abokatu batek Justizia Administrazioarekiko komunikazio telematikoaren sistemaren (JustiziaSIP) inguruan duen arazoa azaldu zuen. Zehazki, Windows ez den beste sistema eragile batzuetako inguruneetan aplikazioa erabili ezin zela aipatu zuen.

2018ko urriaren 15etik aurrera, abokatu guztiek nahitaez erabili behar dute plataforma, horixe baita izapide-idazkiak barruti judizial guztietan eta jurisdikzio guztietan aurkezteko bitarteko eskusiboa.

LEA/AVCk hainbat sustapen-jarduera egin zituen Eusko Jaurlaritzako Bulego Judizial eta Fiskala Modernizatzeko Zuzendaritzaren aurrean, uste baitzuen 2018ko urriaren 15etik JustiziaSIP plataforma beste sistema eragile batzuetara ez irekitzea oztopo bat zela EAEn Justizia Administrazioarekin harremana izan behar dutenen lanbidean jarduteko. Halaber, LEA/AVCren ustez, jardunbide hori ez zetorren bat edozein administrazio

publikoren jardueran gailendu behar den neutraltasun teknologikoaren printzipioarekin.

Zuzendaritza horrek hainbat jarduera egin zituen, ohiko nabigatzaile guztiak JustiziaSip-ekin elkarrera-gingarriak izan arte eta, horrela, beharrezko neutraltasun teknologikoa ziurtatu arte.

2.10 Txostenak eta gomendioak sektore publikoari

2.10.1 Eraikingintzako eta Urbanizazioko Prezioen Basea

Zenbait eragile ekonomikok Eraikingintzako eta Urbanizazioko Prezioen Baseari buruzko kontsultak egin zizkieten LEA/AVCri. Prezioen base hori eta sektoreak horren ganean egiten duen erabilera hobeto ezagutzeko, LEA/AVCk sektoreko enpresa eta eragileei kontsulta egin zien 2020ko urtarrilean.

LEA/AVCk datu-base horren existentzia aztertu zuen, lehia askearen ikuspegitik. Ondorioztatu zuenez, tresna horrek ez zuen prezioen gomendio kolektiborik edo baremo orientagarririk eskaintzen (biak ere Lehiaren Defentsari buruzko Legean debekatuak). Hala ere, datu-base horren helburuak betetzeko, eguneratu egin beharko liriateke bai balorazio-irizpideak, bai basean sartutako kontzeptuak.

Izan ere, eraikingintzako eta urbanizazioko prezioen base bat erabilgarria da, soilik baldin eta prezioak era egokian kalkulatu eta behar bezala eguneratuta badaude. Horrela, botere esleitzzaileek behar bezala beteko lukete kontratuen balioa zenbatesteko legezko betebeharra, zenbatespen hori egiteko unean merkatuan dauden prezioak kontuan hartuta. Era berean, lizitatzaille potentzialek beren eskaintzak prestatzeko orduan tresna bat erabil dezakete –ezin da izan ez bakarra, ez nahitaezkoa–.

Horregatik, 2020ko maiatzaren 27ko txostenean, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau ondorioztatu zuen: Eusko Jaurlaritzak planteatu egin beharko luke sortu zenean zituen helburuak betetzen ez dituen tresna bat egotea zilegi ote den, eta, tresna funtsezkotzat joz gero, kontzeptu bakoitza baloratzeko eta eguneratzeko irizpideak birformulatu beharko lituzke.

2.10.2 Kirol-klubek kirol-instalazio publikoak erabiltzeko orduan lehentasuna izatea

Udaleko kirol-instalazioetan kirol-ikastaroak ematen dituzten enpresa batzuek kexak aurkeztu zituzten, esparru horien erabileran irabazi-asmorik gabeko kirol-klub edo -erakundeei abantailak ematen zaizkielako.

LEA/AVCk, Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2020ko otsailaren 28ko bileran, txosten bat onartu zuen kirol-instalazioen jabe diren erakunde publikoek ira-



bazi-asmorik gabeko kirol-erakundeei ematen dieten lehentasuneko tratuari buruz, jarduera ekonomikoak egiteko instalazioak erreserbatu nahi dituzten irabazi-asmoko erakundeen kaltetan (oro har, doakoak ez diren kirol-ikaskuntzako edo -hobekuntzako ikastaroak egiten dira).

Txosten horretan ondorioztatzen denez, kirol-kluben aldeko diskriminazio positiboa administrazio publikoak babestu eta laguntzeko premisan justifikatuko litzateke. Izan ere, kirol-kluben izaera irabazi-asmorik gabeko erakundearena da, eta horien helburu bakarra kirol-modalitate bat edo batzuk sustatzea edo praktikatzea da.

Hala ere, aipatutako diskriminazio positiboak muga batzuk bete behar ditu kirol-klub guztien artean: ez dizkiete batzuei eta besteei betekizun desberdinak ezarriko, eta klub horien kide ez diren pertsona fisiko eta juridikoei ez diete eragotziko kirol-instalazio publikoak erabiltzea, dela kirola egiteko, dela kirolari edo jarduera fisikoari loturiko jarduera ekonomiko bat egiteko.

Hala, erabat ezinezkoa balitz kirol-klub batek baino gehiagok instalazioak erreserbatzea, instalazio publikoaren titularrak lehiaketa bat deitu behar luke, erabilera-erreserba kirol- eta gizarte-eskaintza onena aurkezten duen kirol-klubari esleia dakion.

Aldibereko erreserba hori kirol-klub batek eta irabazi-asmoko erakunde batek egiten badute, kirol-klubei

legez lehentasuna ematea justifikatuta legoke, baldin eta klubek erabilera-erreserba ez badute erabiltzen jarduera ekonomikoak egiteko, irabazi-asmoko erakundeekin lehiari (ordainpeko ikastaroak eskainita)

Aldiz, aldibereko erreserba hori jarduera ekonomiko bat egin nahi duen kirol-klub batek eta irabazi-asmoko erakunde batek eskatzen badute, bietako batek ere ez du legeko lehentasunik izango; izan ere, antzeko jarduerak egiten dituzten bi erakunde lirateke, edozein dela ere lortu duten etekinaren azken helmuga. Kasu horretan, instalazio publikoaren titularrak lehiaketa bat deitu behar luke, erabilera-erreserba gizarte-eskaintza onena (ikastaro-kopuru handiena, preziorik merkeenak, etab.) aurkezten duen erakundeari esleitzeko.

2.10.3 Hiriko mikromugikortasun partekatua eta ingurune lehiakorra

Pertsonen eta salgaien garraioa eraldaketa-prozesu batean murgilduta dago, berrikuntza teknologikoaren eta erabiltzaileen profilen bilakaeraren ondorioz. Era berean, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik iraunkorragoa den prestazio-eredu bat lortu behar da, beroketa globalaren ondorio negatiboak erantzuteko, besteak beste.

Prozesu horretan, bizikleta eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (hala nola patinete elektrikoak



edo e-scooterra) hedatu dira. Garraiobide horietan teknologia digital berriak aplikatzeak enpresa-ekimen berriak sortzea ahalbidetu du, ibilgailu partekatuak errentan emateko zerbitzuak emateko. Hirietan garatu dira gehienbat, eta azken milia edo mikromugikortasuna dute ardatz.

Hirietako mugikortasunaren errealtate berri horrek dakartzan erronka eta desfioen ondorioz, udal-agingarriek araudiak sortu dituzte edo mikromugikortasun-zerbitzuak eskaini dizkiete herritarrei; azken kasuan, eragile ekonomiko ere bihurtu dira.

Hala, udal-botereek eginkizun erabakigarria betetzen dute mikromugikortasun partekatuen konfigurazioan eta sustapenean. Izan ere, enpresa-ekimenak (bikesharinga eta scootersharinga, besteak beste) gauzatzea ahalbidetzen duten inguruabar legal eta ekonomikoen erregulazioan parte hartzen dute.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren txostena 2020ko abenduaren 29ko bileran onartu zen, eta honako hauek aztertu ziren: mikromugikortasun partekatuen kasuistika EAEn, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen azterketa zehatzagoa eginez; tokiko administrazioen erantzunak —bai erregulazioari dagokionez, bai herritarrei garraio partekatuko zerbitzuak emateari dagokionez—; eta erregulazio ekonomiko eraginkorren printzipioekiko lerrokatzea.

Era berean, zenbait gomendio egin ziren, udal-erakundeek laguntzeko eta erabilzailentzat eta eragile ekonomikoentzat lehia-abantailak azaleratzeko.

2.11 Gidak, azterlanak eta kontsulta publikoak

2.11.1 Prezioen datu-basea (BIM kontsulta)

Eusko Jaurlaritzako prezioen datu-basearen azterketaren esparruan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari informazioa eskatzeaz gain, 2020ko urtarrilean sektoreko 20 eragile ekonomiko baino gehiagori (enpresa eta elkar-teak) kontsulta egin zitzaizen, honako hauei buruz:

a) *Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza eta Urbanizazioaren Prezioen Basea (www.euskadieuprecios.com) erabiltzen duzue edo erabili izan duzue inoiz?*

b) *Erantzuna baiezkoa bada, prezioen base hori egotea erabilgarria iruditzen zaizue? Azaldu arrazoia.*

c) *Basean ageri diren prezioak errealtatearekin bat datozeela uste duzue? Erantzuna ezezkoa bada, azaldu arrazoia.*

d) *Base horri buruz egin nahi duzuen beste edozein iruzkin.*

Kontsulta honetarako ekarpenak, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren arlo teknikoko inputekin batera, tresna aztertzeko eta Eusko Jaurlaritzari gomendioak proposatzeko oinarri gisa erabili ziren.

2.11.2 Euskadin erregulazioa hobetzeari buruzko azterlana

LEA/AVCK, arauen esparruko zaintza- eta sustapen-ahalmenen esparruan, 2020ko Ekintza Planean sartu zuen *“Erregulazioari dagokionez, administrazio-erregulazioari buruzko gida bat egitea, lehiaren eta erregulazio onaren ikuspuntutik”*.

Erregulazio-desberdintasunak inbertsio txikiagoarekin eta enplegu gutxiagoarekin zigortu daitezkeenez, eta, horrek, azken batean, herritarren ongizateari eragiten dionez, LEA/AVCK helburu nagusitzat jotzen euskal administrazioei laguntzea, haien ekonomia hobeto kokatzeko erregulazioaren kalitatean eta eraginkortasunean lan egin dezaten.

Testuinguru horretan, eta LEA/AVCK sortu zenetik egin diren arau-azterlanak ikusita, beharrezkotzat jotzen da EAeko esku-hartze publikoaren eraginkortasuna eta efikazia hobetzea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak errespetatzeko, hau da, premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta diskriminaziorik eza bezalako printzipioak errespetatzeko.


2020. urtearen amaieran, LEA/AVCK kontsulta publikoa eginez ekin zion proiektuari, Euskadiko enpresek erregulazio onaren arloan zituzten iritziak ezagutzeko. Ikerfel enpresak egin zuen kontsulta hori, ikuspegi metodologiko kuantitatibotik egindako azterketan oinarrituta; zehazki, 288 elkarrizketa egin zitzaizkien online/telefonoz Euskadiko enpresei, LEA/AVCKren datu-baseen bidez.




Inkesta 2.441 enpresa eta erakunderi bidali zitzaien, eta jendearen eskura jarri zen www.competencia.euskadi.eus webgunean.

Guztira, 288 elkarrizketa egin zitzaizkien hainbat sektoretako enpresa eta erakundeei, ondoren azal-tzen den moduan banatuta.


Enpresaren tamaina




Sektorea



Lurraldea



Entitatea



2.11.3 Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko Gida eguneratzea

2018ko apirilean, LEA/AVCK Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko Gida (aurrerantzean, Kontratazio-gida) argitaratu zuen, 2018ko martxoaren 9an SPKL indarrean jarri zelako. Data horren ondoren, arauak hainbat aldaketa izan ditu artikuluetan.

Hori dela eta, LEA/AVCK eranskin bat egin zion Kontratazioari buruzko Gidari, araudian egindako aldaketetara egokitzeko. Aldaketa horiek, besteak beste, kontratazio txikiari eta prozedura ireki sinplifikatuari buruzkoak dira. Halaber, legea indarrean jarri zenetik aurrera aplikazio praktikoan egon diren aldaketatan sakontzen du eguneraketa horrek, lehiaren arloan garrantzi handia duten alderdietan, hala nola kontratatzeke debekuetan eta esleipen-irizpideetan.

2.11.4 Lankidetzza publiko-pribatuari eta horrek lehiari duen eraginari buruzko azterlana

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2020ko abenduaren 29an egindako bileran, lankidetzza publiko-pribatuari eta horrek lehia askean duen eraginari buruzko txostena onetsi zuen.

Txosten hori egiteko, aldeztu aurretik Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberari *Euskadiko kluster, zentro teknologiko eta elkarteei buruzko* txosten deskribatzailea eskatu zitzaion.

Lankidetzza publiko-pribatuaren egungo kontzeptuaren ondorioz, beharrezkoa da eragile publikoen eta

pribatuen artean eskumen partekatua egotea. Halaber, beren borondatez aritu beharko dira lankidetzan, eta produktuak eta/edo zerbitzuak batera garatuko dituzte, arriskuak, kostuak eta onurak partekatuz. EAEko lankidetzza publiko-pribatu horren adibide dira klusterrak eta zentro teknologikoak, txostenean deskribatzen eta zerrendatzen direnak.

Lankidetzza publiko-pribatua formula ezin hobea da zerbitzu publikoak hobetzeko, zerbitzu horien eraginkortasuna, efizientzia eta kalitatea hobetzeko, bai eta enpresa pribatuen lehia eta berrikuntza hobetzeko ere.

Hala ere, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak arriskuak ere baditu lehiaren ikuspegitik. Hori dela eta, erakundeek eta enpresek kontu handiz jokatu behar dute, eta lehiaren defentsarako agintariek beren jardueraz zaindu behar dute.

Arrisku zehatzen artean honako hauek daude:

- Informazio sentikorra trukatzeko: horrek lehiaren kontrako beste praktika batzuk egitea erraztu dezake, hala nola, prezioen edo beste baldintza komertzial batzuen gaineko akordioak ezartzea eragin dezake, eta, ondorioz, enpresen lehia bateratu egin daiteke.
- Boikota hirugarrenei: proiektu publiko-pribatuaren parte hartzen duten enpresek elkarrekin erreakzionatzeko tentazioa izan dezakete, proiektu horietan parte hartzen ez duten enpresa lehiakideen kaltetan. Horrek, nahiz eta baterako jarduerak helburu legitimoa izan, eragileen portaeraren independentzia urratzea ekarriko luke, merkatuko eragileak baztertu egingo bailirateke.
- Erosketa bateratuak, hiru eratako arau-haustek egiteko arriskuak dituztenak: merkatu-boterea handitzea ibaian gora; besteak baztertzea; eta merkatu-boterea handitzea ibaian behera.
- Ondasunak edo zerbitzuak batera merkaturatzeko akordioak: lehiaren arloan murrizketak eragin ditzakete, hala nola prezioak finkatzea edo ekoizpena mugatzea, edo partaideek merkatuak beren artean banatzeko bitarteko izan daitezke.

Testuinguru horretan, lankidetzza publiko-pribatuaren parte hartzen duten erakunde publikoek neutraltasun hertsia izan behar dute, enpresek klusterretan eta zentro teknologikoetan ahalik eta parte-hartze



handiena izan dezaten eta enpresa bakoitzak aukera-berdintasuna izan dezan. Halaber, zentro teknologiko bakoitza behar bezala finantzatu behar da, enpresa-mundura ezagutza errazago transmititzeko.

Enpresek, baita proiektu publiko eta pribatuetan parte hartzen dutenek ere, murriztu egin dezakete beren erakundearen baitan lehiaren zuzenbidea hausteko arriskua, baldin eta prebentzio-politika bat ezartzen badute. Horretarako, lehiaren arloko compliance-programa bat ezarri behar da.

Azkenik, txostenean, laburpen gisa, "Lankidetzeta Publiko-Pribatuko Jardunbide Egokien Dekalogo" dago.

2.11.5 "New Competition Tool", Europako Batzordearen kontsulta publikoa

Europako Batzordearen Lehiaren Zuzendaritza Nagusiak prozesu bat abiarazi zuen, lehia-araudian aurreikusitako tresnak egungo errealitatera (eta, bereziki plataforma digitalen ekonomiara) egokitzeko. LEA/AVCk bere ekarpenak egin zituen prozesu horretan.



Single Market – new complementary tool to strengthen competition enforcement

2.12 Arauak aurkaratzea

Batzuetan, jarduera ekonomikoari eragiten dion arauak oztopoak edo barrerak sor ditzake merkatuan edo bertara sartzeko orduan. Kasu horietan, Lehiaren

Euskal Agintaritzaren Legearen (LEAL) 3.4. artikuluan aurreikusitako ahalmenen arabera, LEA/AVCk legitimazio aktiboa dauka administrazioarekiko auzien jurisdikzioan egintza eta xedapen orokorrak aurkatzeko, baldin eta xedapen horiek EAEko administrazio publiko autonomiko, foral eta tokikoak ezartzen badituzte eta legea baino maila apalagokoak badira.

2020. urtean, LEA/AVCk araudia aurkaratzeko funtzioa bete zuen. Horretarako, errekurtsioa aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan estatu-mailako baimena duten ibilgailuak gidari eta guzti alokatzeko zerbitzua emateko baldintzei buruzko abenduaren 17ko 22/2019 Dekretuaren aurka.

Hainbat sustapen-jarduera egin ondoren, Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2019ko abenduan, "EAEn gidaridun ibilgailuak alokatzeko zerbitzua emateko baldintzen dekretu-proiektuari buruzko txostena" onartu zuen. Bertan jasotako gomendioen arabera, justifikaziorik gabeko murrizketak berrikusi eta kendu egin behar ziren (adibidez, 20 minutuko kontratazio-denbora, bide publikoetan ibiltzeko debekua, geolokalizaziorako debekua edo haien erabilgarritasuna agerian uzteko debekua), eta araudi bat bultzatu behar zen, kontsumitzaileen onurarako erregulazio ekonomiko eraginkorraren printzipioekin bat datorrena. Gomendio horiek, hala ere, ez ziren kontuan hartu Euskal Autonomia Erkidegoan estatu-mailako baimena (VTC-N) duten ibilgailuak gidari eta guzti alokatzeko zerbitzua emateko baldintzei buruzko abenduaren 17ko 22/2019 Dekretuan.

Hori guztia dela eta, Lehiaren Euskal Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 15ean egindako bileran, 22/2019



Dekretua aurkaratzea erabaki zen. Halaxe egin zen hilabete horretan bertan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Demanda 2020ko azaroaren 16an formalizatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salan.

Bestalde, LEA/AVCk Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko uztaillaren 24ko 117/2018 Dekretuaren aurkako errekurtsioa ere aurkeztu zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, uste baitzuen justifikaziorik gabeko jarduera-erreserba bat ezartzen zuela arkitektoen eta arkitekto teknikoaren alde, eraikinen ikuskapen teknikoak (EIT) egiterako orduan. Aurkaratze-egintza hori oraindik ebatzteko dago.

2.13 Kontsultak

Jarduera ekonomikoen egunerokoan zalantzak sortzen dira jarduera horiek lehiaren arloko legeriarekin bat ote datozen. Halakoetan, administrazioak, eragile ekonomikoek eta kontsumitzaile eta erabiltzaileek kontsulta horiek LEA/AVCri egin diezazkiokete. Azken horrek, besteak beste, organo aholku-emaila gisa jardun behar du, LEALren 3.5. artikulua araberak.


LEA/AVCk arin erantzuten die egindako kontsultei, eta, behar izanez gero, azterketa sakonagoa egiten du txosten bidez edo, hala badagokio, zehapen-espediente bidez.

Kontsultak egiteko, LEA/AVCren edozein kanal erabili daiteke:

- posta: Ercilla, 4-2, 48009 BILBAO
- telefonoa: 944032800
- webgunea: www.competencia.euskadi.eus
- helbide elektronikoa: infocompetencia@avdc.eus

2020an, kontsulten % 60 inguru merkataritza-banaketa, hainbat zerbitzuri eta kontratazio publikoari buruzkoak izan dira.

Kontsulten sektoreka eta kontsultagile-motaka (%)



Hauek dira LEA/AVCk ebatzi dituen kontsulta batzuk:

2.13.1 "Hazinnova" programa

2020ko urtarrilaren 14an, aholkularitza-etxe batek informazio-eskea aurkeztu zuen "Hazinnova" Programari eta Markak eta Patenteak erregistratzeko laguntzen irismenari buruz (9. lotea). Izan ere, zalantzan zuen ea programako agenteek diru-laguntzak aprobetxatuz bezeroen beste marka batzuk erregistratuzaketen.

ENPRESA GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAK (SPRI) aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi zen ez zela inolako sarrera-barrerarik egon, eta, halaber, lehia-printzipioa ez zela urratu, "Hazinnova" programaren kudeaketa esleitu zuen lizitazio publikoaren esparruan. Gainera, kontuan hartuta bertan izandako partaidetza-maila, 9. lotean izapidetutako dirulaguntza-espedienteen kopuru osoa eta enpresa bakoitzak aurkeztutako eskaeren kopurua, ez zen ondorioztatu lehia askearen aurkako jokabiderik zegoenik.

2.13.2 Gipuzkoako Probintziako Burutzak B zirkulazio-baimenaren azterketa praktikoa egiteko duen gaitasuna banatzeko sistema berria

Gipuzkoako autoeskola batek zalantzan jarri zuen sistema berria lehiaren araudira egokitzen ote zen. Sistema hori GGA (gidarien gaitasun-agiria) da, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiak ezarri du Gipuzkoan,

Trafikoko Burutzak aztertzeke duen gaitasuna banatzeko B motako zirkulazio-baimena lortzeko azterketa praktikoa eskatzen dutenen artean.

LEA/AVCk ondorioztatu zuen GGA sistemak irizpide objektiboak, bidezkoak eta proportzionatuak ezartzen dituela probintzia bakoitzeko autoeskolen artean azterketa-gaitasuna banatzeko, gaitasun hori bakoitzaren benetako eskariaren arabera finkatzen baitzen. Aurreko deialdietan gai deklaraturako ikasleen ehunekoaren arabera aplikatzen zen zuzenketa, eta, hala, saritu egiten ziren ondo prestatuta zeuden eta gainditzeko aukera handiagoa zuten ikasleak aurkezten zituzten autoeskolak. Ondorioz, prestakuntza hobea ematea eta zerbitzu publikoa emateko baliabideak hobeto erabiltzea sustatzen zen.

Hori dela eta, LEA/AVCren arabera, GGA sistemari ezarritako irizpideek ez zuten sektoreko eragile ekonomikoen arteko lehia murriztapenik edo mugarik planteatzen.

2.13.3 EAEko Jokoaren Erregistro Nagusia eta Merkatu Batasuna Bermatzeko Legea (MBBL)

Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak kontsulta egin zuen MBBLren aplikazioari buruz, EAEko jokoaren erregelamendu orokorra onartzen duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuari dagokionez; galdetu zuen, zehazki, ea enpresa fabrikatzaileak, inportatzaileak, merkaturatzaileak eta laguntza teknikoko enpresak, beste autonomia-erkidego batean ateratako gaikuntza-titulu bat daukatenak, EAEko Jokoaren Erregistro Nagusian ofizios inskribatzean zuzendari nagusiaren ebazpena beharko litzatekeen eta dagokion tasa igorri beharko litzatekeen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Tasa eta Prezioen Legearen arabera, edo, bestalde, jarduera horiek MBBLren 18. artikulua aurkakoak ote liratekeen.

Kontsulta horri emandako erantzunak erabaki zuen MBBLn ezartzen diren diskriminaziorik ezaren, lankidetzaren eta elkarrekiko konfiantzaren, behararen eta proportzionaltasunaren, kargen sinplifikazioaren eta gardentasunaren oinarritzko printzipioak funtsezko zutabeak direla eragilean, ondasunen eta zerbitzuen ezarpen- eta zirkulazio-askatasuna bermatzeko, eta, ondorioz, merkatu-batasuna bermatzeko.

Era berean, adierazi zen Jokoaren Erregelamendu Orokorren 52. artikulua MBBLn ezarritakoa behar bezala betetzen duela, Jokoaren Erregistro Nagusian ofizios inskribatzen baitu, eta, beraz, beste

autonomia-erkidego batzuetan aitortutako enpresa fabrikatzaileei, inportatzaileei, merkaturatzaileei eta laguntza teknikoko enpresei Euskadin jarduteko aukera ematen baitie. Erregistroko inskripzio hori ezin da diskriminatzailetzat hartu, jurisprudentzia konstituzionalaren arabera. Baina inskripzio hori EAEko enpresa baten baldintza beretan egin behar da, eta, beraz, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak, hots, EAEko Jokoa Arautzen duen Agintaritzak, ebatzi behar du ofizios inkripzioa, Erregelamendu Orokorreko 51. artikulua EAEko enpresentzat ezartzen duen bezala.

Inskripzio horri lotutako tasen ordainketari dagokionez, ondorioztatu zen ez dela horren gaineko ezer esaten Jokoaren Erregelamendu Orokorrean; izan ere, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzekoak, argi eta garbi ezartzen du joko-enpresen erregistroetan inskribatzeak 185,01 euroko tasa sortuko duela fabrikatzaile eta banatzaileentzat. Tasa hori ezartzean ezin da pentsatu beste autonomia-erkidego batzuetan aitortutako enpresa baten joko-jarduera diskriminatutako duen baldintza bat ezartzen denik. Izan ere, aipatu testu bateginaren 7. artikulua ezartzen duenez, bere zergapeko egitatea osatzen duen zerbitzuaren edo jardueraren kostuaren, hau da, erregistroan inskribatzearen kostuaren pareko kontraprestazioa da.

Horrenbestez, LEA/AVCren iritziz, beste autonomia-erkidego batzuetan aitortutako enpresak Joko Erregistro Nagusian ofizios inskribatzeak ez du MBBLren 18. artikuluan xedatutakoa urratzen, eta inskripzioa Joko eta Ikuskizunen zuzendariaren berariazko ebazpen bidez egin behar da, erregistroa kudeatzeko eskumena duenez gero. Azken hori da, hain zuzen ere, EAEko Jokoa Arautzeko Agintaritzak. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea beste autonomia-erkidego batzuetan aitortutako enpresei ere aplikatu dakiekeela ondorioztatu zen, eta, beraz, dagokion tasa igortzeak ez du urratzen MBBLren 18. artikuluan xedatutakoa.

2.14 Lehia ikastetxeetan

2.14.1 Unibertsitatea

2020ko azaroan eta abenduan, LEA/AVCko lehia-arduradun batek Lehiaren Zuzenbidea irakasgaia eman zuen Abokatutza Jarduerako 2019/2020ko unibertsitate-masterrean, euskaraz. 6 ordu iraun zuen, 3 egunetan banaturik.

LEA/AVCren ustez, ezinbestekoa da euskal abokatuen promozio berriek trebakuntza sakona izatea lehiaren zuzenbidearen arloan. Horrek, enpresa eta profesionalei emandako aholkularitza juridikoaren bitartez edo lehiaren kontrako jokabideen salaketaren bitartez, EAEko merkatuetako lehia askearen egoera hobetzea ekarriko du eta, ondorioz, euskal herritarren ongizatea areagotuko du.

2.14.2 Praktiketako programa

LEA/AVCk konpromiso argia du ikasleei eta gazteei lehiaren zuzenbidearen arloko prestakuntzan eta profesionalizazioan laguntzeko. Horretarako, urtero praktikak egiteko aukera ematen du.

2020an, DEMAren (DEMA-Enpresa Garatzen Laguntzeko Elkartea) MILLENNIAL 1000*1000 programaren barruan, UPV/EHUko Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatean kazetaritza graduatu berri den gazte batek ikaskuntza praktikoko esperientzia batean parte hartu zuen LEA/AVCn.

Era berean, Deustuko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, zuzenbideko graduako ikas-

le batek 150 orduko curriculum-praktikak egin zituen LEA/AVCn.

LEA/AVCk eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten ikasleei egindako lan, ahalegin eta inplikazioagatik.

2.14.3 Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak

EAEko bigarren hezkuntzako ikastetxeek LEA/AVCren laguntza izateko aukera dute, lehiari eta hura mantentzeko eta sustatzeko beharrari buruzko formazioa eskuratzeko.

2020. urtean, euskaraz eta gaztelaniaz emandako saio teoriko-praktiko horietan, 200 ikaslek parte hartu zuten, honako ikastetxe hauetan:

- CPEIPS ASKARTZA CLARET HLBHIP
- IES AIXERROTA BHI
- CPEIPS KIRIKIÑO IKASTOLA HLBHIP
- IES BOTIKAZAR BHI
- IES JULIO CARO BAROJA BHI





Lehia
defendatzea



Lehia defendatzea

1

Zehatzeko ahalmena baliatuz

Lehiaren defentsarako ahalmenen erabilera Lehiaren Defentsari buruzko Legean eta haren Erregelamenduan arautzen da. Funtzio horrek esan nahi du LEA/AVCk ikertu eta, hala badagokio, zehatu egin behar duela, merkatuan lehiari eraso egiten dioten jokabideak gertatzen direnean; hala nola: kolusiozko jokabideak, nagusitasunezko egoeraren abusuak eta egintza desleialen bidez lehia askea faltsutzeko egintzak, interes publikoari eragiten diotenak.

2020an, LEA/AVCk baliabide propioak indartu zituen lehiaren aurkako jarduerak detektatzeko, hirugarrenen salaketarik ez zegoen kasuetan. Kontratazio publikoko kolusiozko praktikak ere izan zituen ardatz, Administrazioarentzat eta interes orokorarentzat oso eragin negatiboa dutelako. Halaber, kolektibo zaugarriari eragiten dieten merkatu/sektore sentikorretako lehiaren gaineko urraketak ere aztertu zituen.

Hala ere, LEA/AVCren jarduera aurreko ekitaldietatik bereizi duena besterik izan da: beharrezkoa izan da adi egotea lehiaren aurkako jarreraren aurrean, eta horien aurrean jardutea, jokabide horiek bereziki

kaltegarriak izan baitaitezke kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat COVID-19aren pandemiaren testuinguruan.

Kopuru orokorretan, 2020an, 32 kasutan lan egin da, eta aztertutako kasuistiken % 60ra iritsi dira kontratazio publikoa, zerbitzuak eta banaketa komertziala.


Espediente horiek administrazio-prozedura berezi bat bete behar dute. Prozedura arautua hasitakoan, elkarren segidako bi fase aurreikusten dira, eginkizun desberdinak dituzten bi organo bereiziren aurrean gertatzen direnak: Ikerketa Zuzendaritzak (IZK) sustatzen duen instrukzio-fasea eta Lehiaren Euskal Kontseiluari dagokion ebazpen-fasea.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenek administrazio-bidea amaitzen dute, eta jurisdikzioan berrikus-ten dira. Horien aurka errekurtoa jarri daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian.


Jarraian, COVID-19ak lehiaren defentsan duen eragina berrikusi ondoren, organo horien jarduerak zehazten dira.

Defentsa: Proiektuak (Kopurua)

- Prestatzen
- Abiarazitakoak
- Amaituta
- Guztira




Jarduketak: jarduera kopurua gaika



2

Lehiaren defentsa COVID-19aren garaietan

LEA/AVCK areagotu egin zuen COVID-19aren esparruan gerta litezkeen lehiaren aurkako jokabideen aurreko zaintza. Horretarako, herritarrei informazioa ematen hasi zen, bai pandemiaren ondorioz merkatuetan sor zitezkeen arazoen berri emateko, bai halakoetan LEA/AVCri jakinarazteko aukera azaltzeko.



Kontsumitzaileengan eta erabiltzaileengan (bereziki, ahulenengan) eragin negatiboa izan lezaketen jokabideak antzemateko eta jazartzeko ildo horretan, KONTSUMOBIDEREkin lankidetzan aritu zen, hornitze-arazoei eta/edo produktu kritikoen prezioei dago-kienez, hala nola gel hidroalkoholikoaren, maskaren, eskularruen eta abarren kasuan.

Jarduera horietatik 4 kasu sortu ziren, eta Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legeak (EKL) arautzen duen espedienteak esleitzeko mekanismoaren mende jarri ostean, MLBNren eskumenera pasa ziren.

Bestalde, eta prozedurari dagokionez, alarma-egoerari buruzko Errege Dekretuaren ondorioz, espedienteak izapidetzean preskripzio- eta iraungipen-epeak eten egin ziren, salbu eta administrazio-prozedurekin jarraitzea eskatzen zuen interes publikoa zegoen kasuetan edo administratuak konponezinak ziren kalteak alegatzen zituen kasuetan.

Aurrekoan oinarrituta, informazio erreserbatuaren izapidean eta irekiera-izapidean zeuden zehapen-prozeduretan, baldin eta horietan ekintzaren bat egiteke bazegoen (esaterako, informazio-errekerimendua), prozedura horiek gelditu egin ziren, osasun-krisiaren egoerarekin eta krisiak eragindako merkatuen egoerarekin zuzeneko zerikusia zuten kasuetan izan ezik.

Etenaldi hori ekainaren 1ean amaitu zen, eta, ondorioz, etendako epeak berriro hasi ziren.

3

Ikerketa Zuzendaritzaren jarduerak

IZk aztertzen dituen kasuen iturriak askotarikoak izan daitezke: bere ikerketak, hirugarrenek planteatutako salaketak edo informazio publikoa. Datuak edo informazioak ezagutzuz gero, IZk eginbideak edo, hala badagokio, informazio erreserbatua abiarazten du, lehiaren aurkako praktikaren zantzurik ote dagoen egiaztatzeko. Halakorik antzematen badu, dagokion zehapen-espeditentea ireki daiteke.

IZren ardura da, besteak beste:

- organo eskuduna izendatzeko prozedurak aplikatzea, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legean (EKL) ezarritakoari jarraiki,
- ikuskapenak egitea,
- zehapen-espeditenteak ireki eta haien instrukzioa egitea, eta Lehiaren Euskal Kontseiluari ebazpen-proposamena edo artxibatzea helaraztea,
- Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenetan ezarritako betebeharrak betetzen eta gauzatzaren direla zaintzea.

3.1 Espedienteak esleitzea

Koordinazioari buruzko 1/2002 Legearen 1. artikuluan aurreikusitako esleipen-sistemaren arabera, 2020. urtean 13 gai esleitu ziren guztira.

MLBNri, 6 kasu esleitu zitzaizkion, jokabideek EAetik gorako eremu bati eragiten ziotela iritzita. Jakinarazitako jarduerak eragina zuten turismoaren, merkataritza-banaketa-aren eta zenbait zerbitzuren sektoreetan.

MLBNri esleitutako 6 gai horietatik 4 COVID-19 gaia-rekin lotuta zeuden, produktu edo zerbitzu horien kontsumoa pandemiaren ondorioz aldatu egin zelako. Alarma-egoerari buruzko Errege Dekretuak martxoaren 14tik ekainaren 1era bitartean MLBNrekin espeditenteak esleitzeko sistema eten zuen arren, Errege Dekretu horren 4. atalaren arabera, alarma-egoera justifikatzen zuten gertaerekin lotutako egoeretan esleipen-izapidea egin zitekeen.

Esleitutako gainerako 7 gaietan, eskumena LEA/AVCri egokitu zitzaion. Batez ere, bidaiarien garraioaren sektoreei, industria-sektoreari eta zerbitzu-sektoreari lotutako gaiak izan ziren.

3.2 Ikuskapenak

IZk hainbat tresna ditu alde zuzenetik zehazteko ea zehapen-espeditentea ireki beharra justifikatzen duten egoerak ote dauden. Tresna horien artean sartzen dira, hain zuzen ere, enpresen helbideetan egiten diren ikuskapenak. Halaxe jasotzen du LEAL-ren 13.1e) artikulua.

Ikuskapen horietan, LEA/AVCko karrerako funtzionario baimendunak agintaritzako agente bihurtzen dira, eta, beraz, eskumena dute, besteak beste, honako hauek egiteko:

- a) Enpresen edo enpresa-elkarteen edozein lokal, instalazio, lursail edo garraiobidera sartzea, bai eta enpresarien, administrarien eta enpresetako beste langile batzuen helbide partikularretara ere.
- b) Kasuan kasuko jarduerari buruzko liburuak, erregistroak eta beste agiri batzuk egiaztatzea, horien euskarri materiala edozein dela ere.
- c) Liburu edo dokumentu horien kopiak edo laburpenak egitea edo lortzea, edozein formatutan.
- d) b) letran aipatutako liburu edo dokumentuak 10 egunez atxikitzea gehienez.
- e) Enpresaren lokal, liburu edo agiri guztiak eta gainerako ondasunak ikuskapenerako behar den denboran eta neurrian zigilatzea.
- f) Enpresako edo enpresa-elkarteko langileen edozein ordezkari edo kideri ikuskapenaren xedearekin eta helburuarekin zerikusia duten gertaera edo dokumentuei buruzko azalpenak eskatzea eta haien erantzunak jasota uztea.

2020an, martxoaren 3an, 4an eta 5ean, LEA/AVCk MLBNk euskal siderurgia-enpresa batean egindako ikuskapen batean lagundu zuen.

LEA/AVCren aurrean salaketa jarri ondoren, uztailaren 21ean eta 28an, Bizkaiko hormigoiaaren sektoreko 3 enpresaren egoitzetan ikuskapenak egin zituen Ikerketa Zuzendaritzak, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua debekatutako praktikak egiten ari zirela susmatzen zuelako.

Gainera, LEA/AVCk hasitako ikerketa baten esparruan, abenduaren 21ean eta 22an bi eragile ekonomikoren egoitzak ikuskatu ziren bidaiarien garraioaren sektorean.

3.3. Zehapen-espedienteak ireki eta haien instrukzioak egitea

Zehapen-espediente bat irekitzeak ez du esan nahi amaiera dagoeneko erabakita dagoela. Hasiera-data-tik 18 hilabeteko epea dago espedientearen instrukzioa egin eta ebazteko.

2020an, hiru zehapen-espediente ireki ziren, eta, beraz, urtean guztira lau zehapen-espedienteren instrukzioak egin ziren:



Irekitako espedienteak

Zkia.	Izena	Irekitze-data	Jatorria	Espedientatuak
303	Meteorologia-radarrak	2019/12/19	Bestelakoak	ADASA SISTEMAS, S.A.U. AFC INGENIEROS, S.A. DTN SERVICES AND SYSTEMS SPAIN, S.L MCV, S.A.
363	Higiezin enpresen komizioak alokatzeagatik	2020/10/06	Ofizioz	AGENCIA DE LA PROPIEDAD INM. IRIZAR, S.L. ALDARIZ, S.A. ASKAO FINANCES, S.L. ATEA HOME S.L. BERTEGI GESTORES INMOBILIARIOS, S.L. BI-WOTER 56, S.L. DESARROLLO NUEVA BILBAO, S.L. ESTUDIO INMOBILIARIO ITURRIAGA, S.L. FINCAS DEL HOYO, S.L. FINCAS INDAUTXU 2001, S.L. FINCAS LERSUNDI, S.L. GESTIÓN INMOBILIARIA EL BOTXO, S.L. GESTIÓN INMOBILIARIA BASABE, S.L. GESTIÓN INMOBILIARIA QUORUM SANTUTXU, S.L. GESTIÓN INMOBILIARIA REKALDE BERRIA, S.L. GESTIÓN INMUEBLES CAMPUZANO, S.L. GESTIÓN INTEGRAL INMOBILIARIA INGESIN, S.L. GESTIÓN PATRIMONIAL BILBAO CENTRO, S.L. GRUPO INTERGÉS, S.A. HOUSE ONA GESTIÓN Y SERVICIOS INMOBILIARIOS, S.L. INMO Y OTRAS, S.L. INMOBASARRATE, S.L. INMOBERRI 2006, S.L. INMOBILIARIA CENTRAL SAN INAZIO, S.L. INMOBILIARIA RUI-WAMBA, S.L. INMOBILIARIA SOMERA, S.L. INMOBILIARIA UGALDE 17, S.L. INVERSIONES BILBOCASA, S.L. IRALA GESTIÓN, S.L.U. LAR SERVICIOS DE GESTIÓN PATRIMONIAL, S.L. MARIATOMASA, S.L. MARTIN LAUCIRICA GRUPO ASESOR, S.L. PROMOTORA DE INMUEBLES YANGAR, S.L. SAMAURI, S.L. TXURDINAGA CONSULTING XXI, S.L. URBEGES ADMINISTRACIÓN DE COMUNIDADES, S.L.
436	Hormigoi-horniketa	2020/12/18	Salaketa	HORMIGONES VASCOS, S.A. HORMIGONES ZAMUDIO, S.L. HORMIGONES SANTULLÁN, S.A. HORMIGONES ARRIGORRIAGA, S.L.
421	Fumigazioak	2020/12/21	Salaketa	ROCA DEFISAN, S.L.

3.4 Zaintza

IZk egiaztatu behar du LEKek ezarritako betebeharrak ebazpenetan xedatutakoaren arabera betetzen direla, ebazpen horiek betearazleak izan ondoren.

Zaintza horretan –LEKaren ebazpenek ondorio guztiak zabal ditzaten lortzea du helburu–, egiaztatu egiten da merkatuan lehia eraginkorra berrezartzeko ezarritako jarduketak egin direla eta ezarritako zehapenak ordaindu direla.

2020an, IZk espediente hauen gaineko zaintza-lanak egin ditu:

- LEA/AVC 10-SAN-2012 Zerbitzu farmazeutikoak egoitzetan
- LEA/AVC 69-SAN-2014 Garraio horizontala
- LEA/AVC 130-SAN-2016 Gipuzkoako bidaiarien garraioa
- LEA/AVC 174-SAN-2019 Olioien bilketa
- LEA/AVC 337-SAN-2019 Debako Hilerria
- LEA/AVC 413-SAN-2020 Altube Unibertsitate Elkarte



4

Lehiaren Euskal Kontseiluak zehapen-espeditenteak ebaztea

Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espeditente baten instrukzioa amaitzen duenean, ebazpen-proposamena egiten du, eta alderdiei jakinarazten zaie, alegazioak aurkez ditzaten. Ebazpen-proposamen hori, ikerketa-fasean egindako jarduketak guztiekin eta alderdien alegazioekin batera, Lehiaren Euskal Kontseiluari igortzen zaio, kideek aztertu eta balora dezaten.

Lehiaren Euskal Kontseiluak ebazpena ematen du, administrazio-bidea amaituz, eta, horren bidez, honakoak ezar ditzake: LDLk debekatutako jokabideak antzeman direla; garrantzi txikia izateagatik lehiari nabarmen eragiteko gai ez diren jokabideak daudela; edo ez dela debekatutako jokabiderik egiaztatu.

Aurrekoan oinarrituta, Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenetan honako hauek jaso daitezke:

- Debekatutako jokabideak epe jakin batean bertan behera uzteko agindua ematea.
- Baldintza edo betebehar zehatzak ezartzea, egiturazkoak nahiz portaerazkoak izan.
- Interes publikoaren kontrako praktika debekatuen ondorioak kentzeko agindua ematea.
- Isunak jartzea.
- Jarduerak artxibatzea.
- LDLk baimentzen duen beste edozein neurri hartzea.

Jarraian, Lehiaren Euskal Kontseiluak 2020. urtean erabakitako zehapen-espeditentearen ebazpenak jaso dira.

4.1 Debako hilerri berriaren proiektuak idazteko esleipenak

Debako Udalaren aurkako salaketa baten ondorioz, LEA/AVCK LDLk debekatutako balizko jarduerekin zerkusia duen gai hau ikertu zuen, Debako udalerrian hilerri berri bat eraikitzeke proiektu arkitektonikoak kontratatzeke izapideetan. Salatzailearen iritziz, LDLen 1. artikulua debekatzen duen praktika bat gauzatzen ari da Udala, norgehiagoka de facto kendu duelako, arkitekto jakin bati edo bere enpresari kontratu publikoak zuzenean esleitzean.

Kontratazio txikiari dagokionez, Ekintza Planean jasotako helburuen esparruan, Ikerketa Zuzendaritzak informazio erreserbatuaren fasea hasi zuen, aldezturik zehazteke ea zehapen-espeditentea irekitzeke behar ziren inguruabarrak gertatzen ziren. Fase hori amaituta, Ikerketa Zuzendaritzak Lehiaren Euskal Kontseiluari proposatu zion zehapen-prozedura ez irekitzeke eta egindako jarduerak artxibatzeke; izan ere, espeditentean jasotako datuen arabera, Debako Udalak une horretan indarrean zegoen SPKLk emandako administrazio-ahalmenak erabili zituen kontratu horiek esleitzean, eta, beraz, ez zen eragile ekonomikotzat hartzen. LDLren 1. artikuluan ezarritako kolusiozko akordioak debekatzeko, eragile ekonomikoen arteko borondate-ituna behar da.

Lehiaren Euskal Kontseiluak IZren proposamena jaso zuen eta, espeditentea aztertu ondoren, 2020ko martxoaren 30eko bileran erabaki zuen zehapen-prozedura ez irekitzea eta aipatutako salaketaren esparruan izandako eta instrukziopean jarritako jarduerak artxibatzea, ez baitzen egiaztatu LDLren arau-haustearen zantzurik zegoenik. Edonola ere, gertaerak LDLren 1. artikulua urratzen ez zuten arren, kontratatuz txikia erabiltzean praxi txarraren aztarnak ikus zitezkeen, eta, beraz, sustapena hasi

zen. Horren ondorioz, Lehiaren Euskal Kontseiluaren txosten bat idatzi zen eta Debako Udalarari zenbait gomendio egin zitzaizkion.

4.2 Olio birziklagarria biltzea

2016ko martxoaren 14an, Eko Gasteiz, S.L. sozietateak salaketa bat aurkeztu zuen. Horren arabera, EAEn erabilitako landare-olioa bildu eta kudeatzeko egindako kontratu publikoen merkatuen ustezko banaketa gertatu zen Rafrinor, S.L. sozietatearen eta Ecogras Recuperación y Reciclaje, S.L. sozietatearen eskutik.

2019ko otsailaren 25ean, IZk Rafrinor, S.L. eta Ecogras Recuperación y Reciclaje, S.L. sozietateei zehapen-espedita ireki zien, LDLren 1. artikuluan oinarrituta. Dagokion ebazpen-proposamena egin ondoren, Lehiaren Euskal Kontseiluak ahozko bista egitea erabaki zuen, LDLren 51.3. artikuluari jarraikiz. Bista hori, Rafrinor, S.L. sozietateak eskatua, uztaillaren 2an egin zen LEA/AVCren egoitzan, eta, hala, LEA/AVCk lehen aldiz erabili zuen legean aurreikusitako tresna hori.

2020ko urriaren 16ko bileran, Lehiaren Euskal Kontseiluak zehapen-ebazpena eman zuen espedita honetan, eta deklaratu zuen EAEko toki-administrazioek 2002. urtetik 2013. urtera bitartean esleitutako kontratuen bidez landare-olio erabiliaren bilketan eta kudeaketan merkatua banatzeko akordioa hartu izana egiaztatu zela. Banaketa horren arabera, enpresa bakoitza alde aurretik mugatutako eremu geografiko batean aurkezten zen lizitazioetara, eta, beraz, uko egiten zion beste enpresak zerbitzua ematen zuen herrietan lehiatzeari.

Hala, Lehiaren Euskal Kontseiluak LDLren arau-hausteko oso larri batengatik jarri zitzaizkion zehapenak bi

aldee; zehazki, 25.375,33 €-tan Rafrinor, S.L.ri. eta 14.465,79 €-tan Ecogras Recuperación y Reciclaje, S.L.ri.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenaren aurka errekurtsioa iragarri zen Euskal Autonomia Erkidego-ko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, baina oraindik ez da formalizatu.

4.3 Bidaiarien garraioa: Leioa EHU/Bilbo-Gasteiz

2020ko urtarrilaren 9an, Altube Unibertsitate Elkar- teak salaketa bat jarri zuen Autobuses La Unión, S.A. enpresaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka, ustez lehiaren aurkako jarduerak egin izanagatik, erabilera orokorreko bidaiarien herri arteko garraio erregularren emakida bateratuaren esparruan, A 3700 linean, Bilbo eta Gasteiz artean; zehazki, A3716 linean, Gasteiz eta UPV/EHU artean. Bertan salatu zenez, ibilbideak handitu eta emakidan aldaketak sartu ziren, prozedura irekiaren pean jarri barik, eta, bestalde, prezio kaltegarriak ezarri ziren, merkatuko lehia ezabatzeke asmoz.

Lehiaren Euskal Kontseiluak jarduerak artxibatzea ebatzi zuen, salaketaren gertaerak ez zirelako egiaztatuta geratu. Izan ere, alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak emakida kudeatzeko erabakiak hartzean, errepide bidezko bidaiarien garraioa arautzen duen sektore-araudian esleitutako administrazio-ahalmenak baliatu ziren.

Bestalde, LEA/AVCk egindako azterketa ekonomikoan egiaztatu zenez, La Unión enpresak A3716 linean ezarritako bono eta geldialdi berriek ez zuten eragin emakidadun gisa (emakidaren A3716 linean) zuen nagusitasunezko egoeraz modu justifikatu gabean abusatzerik eta ez zen lotutako merkatuan inor baztertzeko ondorioz sortu (unibertsitateko ikasleen garraio berezia Gasteiz eta Bilbo artean). Ez zen frogatu ezarritako prezioak harrapakariak zirenik, ez Altubek kudeatzen duen zerbitzuaren erabiltzaileak La Unionera aldatu zirenik, ez eta erabiltzaile batzuen aldeko eta beste batzuen kalterako prezioak zeudenik ere.

Azkenik, salatutako jokabideak egintza desleialen bidez lehia faltsutzen ez zuela ondorioztatu zen.



5

Ebazpenen jurisdikzio-berrikuspena

5.1 Natur Kalitatea

Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 15eko ebazpena irmo bihurtu zen, BIHOELEk bertan behera utzi baitzuen zehapen-espeditentea artxi-batzeko eta ez irekitzeko akordioaren aurka EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Aurkaratutako ebazpenak zioenez, ez zen egiaztatuta geratu Eroski S.Coop. eta Hazi Fundazioaren aurka jarritako salaketaren aurrean lehiaren defentsarako araudia hautsi zenik, lehiaren defentsaren arloan debekatutako jarduerak egin izanagatik, Eusko Label Kalitatea berme-markaren (Hazi Fundazioaren jabetzakoa) eta Eroski Natur markaren (Eroskiren jabetzakoa) elkartearentzat hartutako kobrantza-akordioaren ondorioz.

5.2 Gipuzkoako bidaiarien garraioa

Gipuzkoako Bidaiarien Hiriarteko Garraioen Enpresa Elkartek (AVITRANS) eta zigortutako enpresa batzuek errekurtsoak jarri zituzten (guztira, 15) EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2017ko abenduaren 27ko ebazpenaren aurka. Ebazpen horren arabera, AVITRANSek eta bidaiariak garraiatzeko hainbat enpresak arau-hauste oso larria egin zuten, arau-hauste bakarra baina jarraitua bera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, igorritako hamabost epaietatik bederatzitan, zati batean onetsi zuen errekurtsoa, eta zigorraren beste kuantifikazio bat egiteko agindu zuen.

Horren ondorioz, Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2019ko maiatzaren 15ean egindako bileran, Ebazpen Osa-garri bat eman zuen, 130-SAN-2016 GIPUZKOAKO BIDAIARIEN GARRAIOA izeneko espeditenteari buruzkoa.



Horren bidez, zenbait zehapen ezarri zituen, eta, era berean, 2017ko abenduaren 27ko ebazpenean onartutako zehapenak arrazoitu eta zenbatekoak berretsi ziren.

AVITRANsek eta sei enpresak (AUIF, GARAYAR, URPA, AIZPURUA, GUREBUS eta PESA), era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten Ebazpen Osagarri horren aurka. Bertan, arau-hauste oso larri bat egiteagatik jarritako isunak berresten ziren. PESAK, ondoren, errekurtsoan atzera egin zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak lau epai eman ditu 2020an (AVITRANS, AUIF, GARAYAR eta URPA), eta aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezetsi du kasu guztietan.

TOLOSALDEA BUS, S.L.k eta AUTOCARES IPARRAGUIRRE, S.L.k kasazio-errekurtsoa jarri zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2019ko martxoaren 7an emandako epaia aurkaratuz 117/2018 errekurtsoan. Errekurtso horren bidez, ezetsi egin zen enpresa horiek LEA/AVCren 2017ko abenduaren 27ko ebazpenaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, hain zuzen ere, AVITRANsek eta bidaiarien garraio-enpresa batzuek arau-hauste larri bat (bakarra eta jarraitua) egin zutela aitortzen zuena.

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia finkatu zuen, eta LEA/AVCren 2017ko abenduaren 27ko Ebazpena berretsi, Gipuzkoako autobusen gaian: "Arau-hauste jarraituen kasuan aplikatu beharreko preskripzio-epaia arau-haustea egin zen unean zegoena da, hau da, arau-haustea amaitu zenean zegoena, baldin eta jokatibide arau-hauslea egin zenean lehiaren defentsarako arauen segida bat egon bazen, bakoitza preskripzio-epaie desberdinekin".

5.3 Bizkaiko Abokatuen Elkargoko Arbitraje Gorteko laudoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, 2020ko maiatzaren 12ko epaian, ezetsi egin zuen Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2018ko urriaren 18ko Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa. Ebazpen horren bidez, zehapen-espeditatea artxibatu eta ez irekitzea erabaki zen, Legekariaren Euskal Kontseiluaren Arau Orientagarrien baremoak (araudian debekatutako baremoak) erabiltzeagatik Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren Arbitraje Gortea salatu zen gai batean.

Beraz, irmo bihurtu zen Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2018ko urriaren 18ko Ebazpena, zeinaren bidez ebatzi baitzen zehapen-prozedura ez irekitzea eta instrukziopean jarritako jarduerak artxibatzea, ez zelako egiaztatu LDL urratu izana egiaztatzeko zantzu nahikoa zegoenik.

5.4 Osasun-laguntzako aseguruak

QuironSalud-ek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Lehiaren Euskal Kontseiluaren 2019ko urtarrilaren 30eko ebazpenaren aurka. Errekurtso hori 2020ko urrian ezetsi zuen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak, eta, horrela, aurkaratutako ebazpena berretsi zen.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ebazpenak zehapen-prozedura ez irekitzea eta instrukziopean jarritako jarduerak artxibatzea erabaki zuen, uste baitzuen IMQk, Bizkaiko osasun-laguntza pribatuko aseguruaren merkaturan nagusitasunezko egoeran egon arren, ez zuela abusurik egin. Hain zuzen ere, ez zen frogatu salatzailearekin osasun-prestazioak hitzartzeari behin eta berriz eta justifikaziorik gabe uko egin izanaren zan-





tzurik zegoenik. Aitzitik, QuironSaluden ustez nahikoa ez ziren zenbait osasun-prestazio partzialki ituntzeko akordioa sinatu zuten aldeek 2017. urteko abuztuan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ulertu zuen Lehiaren Euskal Kontseiluaren artxibatzte-ebazpena zuzenbidearekin bat zetorrela; izan ere, ikerketa-jarduera egoki guztiak egin ziren, eta horiek ez zuten zehaztu arau-hauste baten zantzurik zegoenik.

5.5 Koke metalurgikoa. Lehia-auzia berrestea LEA/AVCren alde

2016. urtean, Ikerketa Zuzendaritzak informazio erresebatua jarri zuen martxan, EAeko koke metalurgikoaren merkaturatzeari buruz. Hala, hainbat enpresatan egin zituen ikuskapenak. Ondoren, espediente hori MLBNri esleitu zitzaion, EKLn ezarritako esleipen-mekanismoa aplikatu ondoren.

Ikuskapenak egin ondoren, enpresa batek auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bere egoitzan ikuskapena egitearen aurka, eta, errekurtsu hori ezetsi egin zenez, kasazio-errekurtsoa aurkeztu zion Auzitegi Gorenari.

Auzitegi Gorenak errekurtsua tramitatzeke onartu zuen, eta adierazi zuen auziak jurisprudenzia osatzeko kasazio-interes objektiboa zuela. Izan ere, lehia-agintaritzaren autonomiko batek adostutako ikerketa-agindu baten ondorioak zehazten zituen, eta, ondorioz, errekurtsogilearen egoitzan egindako etxez etxeko ikuskapena aztertu ere, MLBNri alde aurretik salaketa jakinarazi gabe, EKLren 2.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2020ko urriaren 13ko epaian, Auzitegi Gorenak ezetsi egin zuen planteatutako kasazio-errekurtsoa, eta adierazi zuen autonomia-erkidegoetako organoek MLBNri alde aurretik ez jakinarazteak ez dakarrela, berez, informazio erresebatu baten esparruan egindakoa erabat deusez bihurtzerik; aitzitik, deuseztasun hori hautemateko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1. artikuluan deskribatutako kasuetako bat gertatu behar da.

Ondorioz, Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen LEA/AVCk egindako ikuskapenaren zilegitasuna, espediente honen instrukzioak egiteko zantzuak eta frogak lortzeko balio izan baitzuen.

INW

Jarduera
instituzionala
finkatzea



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

IV Jarduera instituzionala finkatzea

1

ASCOM 2020 Saria, kategoria instituzionalean




LEA/AVCK ASCOM 2020 saria jaso zuen, kategoria instituzionalean, Compliance programak hedatzen egindako lanagatik.

Sari horiek berariaz aitortzen dute pertsonak eta erakundeek compliance-aren funtzioa profesionalizatu, hedatu eta finkatzeko orduan egindako ahalegina.

“Compliance grinak” LEA/AVCren lan guztia hartzen du, eta argi eta garbi errotuta dago Lehia Sustatzeko

helburu estrategikoetan. Lehiaren kultura hedatzeko eta arauak betetzeko lan hori hainbat jardunaldi eta hitzaldi antolatuz eta horietan parte hartuz egin da, bai eta hainbat argitalpenen bidez ere; horien artean, nabarmentzekoa da “Lehiaren alorrean betetze-programak ezartzeko gidaliburua”, 2019koa, Estatuan diziplina horri buruzko lehena.



2

Agenda

LEA/AVCren lehentasunen artean dago, batetik, bere jarduera enpresetara eta herritarrengana hurbiltzea, eta, bestetik, bere sortze-legean jasotzen den lan

instituzionala garatzea. Helburu horiek bere Ekintza Planean jasota daude, eta 2020an zehar erakundearen agenda zuzendu dute:

Urtarrilak 9	Bilera Loiuko Aireportuko zuzendariarekin
Urtarrilak 15	Lehiaren Euskal Kontseilua
Urtarrilak 22	Basque Railway 2020, Kursaal
Urtarrilak 23	Bilera Bilboko Merkataritza Ganberako zuzendariarekin
Urtarrilak 29	Gosaria eta mahai-ingurua Sidenorreko buru Jose Antonio Jainagarekin (ADYPE)
Otsailak 6	Jardunaldia (LEA/AVC eta Cuatrecasas): "Lehiaren alorreko betetze-programen erronkak eta abaguneak gobernu korporatiborako eta enpresen betetze-kulturarako"
Otsailak 10	Forum Europa Tribuna Euskadi. Eduardo Junkera, ADEGIko burua
Otsailak 13	Conference call-a Fulbright España Fundazioko buruarekin
Otsailak 26-27	Fintech, Regtech eta Legaltech Kongresua (FIDE)
Otsailak 28	Lehiaren Euskal Kontseilua
Martxoak 2	Workshop: "Digital market control to detect competition infringements" (ACCO)
Martxoak 3	Bilera LEA/AVC eta ACCOren artean
Martxoak 5	Bilera Bilboko Merkataritza Ganberako zuzendariarekin
Martxoak 24	Lehiaren Euskal Kontseilua
Martxoak 27	Conference call-a Kontsumobideko zuzendariarekin
Apirilak 20	Forum Ekonomia Berria. Josep Borrel, Europako Batzordeko lehendakariordea
Apirilak 21	Concurrences Quarantine Webinar
Apirilak 23	Bilera telematikoa IHOBerekin
Apirilak 24	Webinar Lehiaren Defentsarako Espainiako Elkartearekin
Maiatzak 13	Webinar UNCTADrekin: "Competition Policy in times of COVID"
Maiatzak 29	Mintegia MLBNren eta lehia-agintaritza autonomikoen artean. Kontratazio publikoa
Ekainak 2	Lehia Sustatzeko Lantaldea
Ekainak 10	Bilera Mercadonako ordezkariarekin
Ekainak 18	International Competition Network (ICN). Kick-off call for the new ICN Year
Ekainak 22	Udako ikastaroa (UPV/EHU): "Lehiaren zuzenbidearen aplikazio eraginkorrago baterantz, merkatu lehiakorrak lortzeko"

Ekainak 26	Bilera MLBNko buruarekin
Uztailak 1	Forum Europa Tribuna Euskadi. Iñigo Urkullu. Lehendakaria
Uztailak 14	Bilera Aitor Aurrekoetxearekin
Uztailak 20	Bilera Xabier Ormaetxearekin, MLBNko aholkularia
Uztailak 23	Bilera GAIA klusterrarekin
Uztailak 28	Lehiaren Euskal Kontseilua
Abuztuak 31	Lehiaren Euskal Kontseilua
Irailak 8	Bilera lehia-agintaritza autonomikoetako buruekin
Irailak 14-17	International Competition Network (ICN) Annual Conference
Irailak 15	Lehiaren Euskal Kontseilua
Irailak 17-18	Udako ikastaroa (UPV/EHU). GIHen aplikazioa sektore pribatuan
Irailak 21	Bilera lehia-agintaritza autonomikoetako buruekin
Irailak 23	Bilera Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarekin
Irailak 25	Mahai-ingurua (PwC). "Eusko Jaurlaritza berriaren erronka ekonomikoak"
Urriak 2	Bilera lehia-agintaritza autonomikoetako buruekin
Urriak 8	Bilera MLBNko buruarekin
Urriak 8	Lehiaren compliance-aren UNE araua egiteko proiektua abiarazteko saioa
Urriak 9	Bilera MLBNko Lehiako buruarekin
Urriak 13	Bilera Itxaso Berrojalbiz legebiltzarkidearekin
Urriak 16	Lehiaren Euskal Kontseilua
Urriak 19	Lehiaren Defentsarako Kontseilua
Urriak 26	Bilera LEA/AVCren, MLBNren, Bilboko Portu Agintaritzaren eta BilbaoEstibaren artean
Azaroak 4	Bilera Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarekin
Azaroak 4	Bilera Randstateko ordezkariarekin
Azaroak 6	W@Competition Annual Conference
Azaroak 11	Enpresa Estrategia ekitaldia
Azaroak 12	W@Competition Annual Conference
Azaroak 20	Lehiaren Euskal Kontseilua
Azaroak 25	LEA/AVCko lehendakariaren agerraldia Eusko Legebiltzarreko Ogasun eta Aurrekontu Batzordean
Azaroak 26	Jardunaldia (LEA/AVC): "Lehiaren Zuzenbidea eta erronka berriak futbol profesionalean pandemiaren aurrean"
Azaroak 27	Bilera Bilboko Portu Agintaritzako eragiketa-zuzendariarekin
Abenduak 2	Bilera birtuala Ekonomiako estatu-idazkariarekin...
Abenduak 3	Bilera IHOBeko ordezkariarekin
Abenduak 4	Agerraldia Eusko Legebiltzarreko Garraio, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordean
Abenduak 4	Bilera Lehia Sarea Sustatzeko Lantaldearekin
Abenduak 7-10	Global Forum on Competition, ELGA
Abenduak 16	Bilera Kontsumobideko zuzendariarekin
Abenduak 17	GIH talde-bilera
Abenduak 18	Bilera Mercabilbaoko ordezkariarekin
Abenduak 29	Lehiaren Euskal Kontseilua

3

Agerraldiak Eusko Legebiltzarrean



LEALren 18. artikulua araber, organismoaren lehendakariak agerraldia egin behar du Eusko Legebiltzarrean, jardueren oroitidazkia eta jardueren plana aurkezteko. 2020an, pandemiaren eta uztai-lean egindako hauteskunde autonomikoen ondorioz, agerraldia atzeratu egin zen, ohiko daten aldean.

Hala, 2020ko azaroaren 25ean, LEA/AVCko lehendakariak 2019ko jardueren oroitidazkia eta 2020ko Ekintza Plana aurkeztu zituen Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordean. Urtean aurrera egin zela kontuan hartuta, egindako ekintza nagusiak azaldu ziren bereziki.

Bestalde, eta EH Bildu legebiltzar-taldeak eskatuta, LEA/AVCko lehendakariak Eusko Legebiltzarreko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Batzordean egin zuen agerraldia abenduaren 4an, alokairuko bitartekaritzaren merkatuko lehiaren aurkako balizko praktika batengatik Bilboko 36 higiezin-etxeri irekita-ko zehapen-espedientearen ondorioz.



4

Estatuko Lehia-Agintaritzen arteko Lehiaren sarea

4.1 Lehiaren Defentsarako Kontseilua

Lehiaren Defentsarako Kontseilua da, ofizialki, lan-kidetzatza, koordinazio eta elkarrekiko informaziorako organo gorena, eta, bertan, Estatuak, MLBN eta autonomia-erkidegoetako lehia-agintaritzak sartzen dira. Organo hori Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legean dago aurreikusita. Lege horrek zehazten du zein erakundek duen zehapen-espeditenteak ezagutzeko eskumena.

Hala, 2020ko urriaren 19an, LEA/AVCko lehendakaria LEA/AVCren ordezkaria izan zen Lehiaren Defentsarako Kontseilu honen urteko bilkuran, eta, bertan, aurreko ekitaldiko jardueren berri eman zen. Bilkura

hartan jorratu ziren, era berean, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aldaketa, ECN+ Zuzentaraura egokitzeko, eta, bereziki, LEA/AVCk lege-aurreproiektuari aurkeztutako alegazioak eta Andaluzia, Katalunia, Aragoi, Galizia, Valentzia eta Euskal Autonomia Erkidegoko lehia-agintaritza autonomikoen jarrera bate-ratua, aurreproiektu horren inguruan. Aurreproiektu horren helburua da, hain zuzen ere, lehiaren gainean dagoen errealitate instituzional deszentralizatua Lehiaren Defentsari buruzko Lege berrira helaraztea.

4.2 Lantaldeak

Estatu-mailako lehia-sareak hainbat lantalde biltzen ditu, eta horietan arazo komunak edo berezko iriz-





pidetaren arabera landu beharreko gai espezifikoak partekatzen dira.

4.2.1 Kontseiluen Lantaldea

Talde honetan biltzen dira zehapen-espeditentak ebazteko ardura duen kide anitzeko organoa duten Estatuko lehia-agintaritzak: MLBN, LEA/AVC, Autoritat Catalana de la Competencia (ACCO), Comision Galega da Competencia, Comissió de Defensa de la Competència de la Comunitat Valenciana, Tribunal de Defensa de la Competencia de Aragón, Jurado de Defensa de la Competencia de Extremadura, eta Agencia de Defensa de la Competencia de Andalucía. 2020an, Kontseiluen Lantalde honek ez zuen bilerarik egin, COVID-19aren ondorioz.

4.2.2 Lehia Sustatzeko Lantaldea

Estatuko agintaritzetako sustapen-arduradunak biltzen dituen talde horrek hiru bilera egin zituen 2020an, telematikoki.

Lehena ekainaren 2an izan zen, eta, bertan, Estatuko laguntzen gainean EBren Aldi Baterako Esparrua aztertu zen, bai eta ekonomia berreskuratzeko orduan lehia sustatzeak duen zeregina jorratu ere. Ondoren, uztailaren 14an, ACREAK (Andaluziako Lehia eta Erregulazio Ekonomikoko Agentziak), lantaldearen baitan, erregulazioaren arloan egiten duen lana aurkeztu zuen.

Urte amaieran, 2020ko abenduaren 4an, sustapen-taldea berriz ere bildu zen, telematikoki, elkargo profesionalen arloko lehia-arazoak nahiz ACCOk autobusez bidaiatzen dutenen garraio-zerbitzua lizitzatzeko orduan egin zituen jarduerak aztertzeko. Era berean, PICA aplikazioa aurkeztu zen, lehia-agintaritzen artean informazioa elkarri trukatzeko.

4.2.3 Ikerketa Zuzendaritzak koordinatzeko lantaldea

Talde hau hainbat erakundetako ikerketa-zuzendaritzek osatzen dute. Bertan, EKL aplikatuz izapidetzen diren espedienteen esleipenari buruzko prozedurazko gaiak jorratzen dira, bai eta lehiaren aurkako praktiken ikerketari buruzko gaiak ere.

2020an, talde honek bi bilera egin ditu. Alde batetik, maiatzaren 27an, hasitako prozeduretan (epeen etendura, esleipenak, ekimenak) eta hasitako ikerketetan COVID-19aren pandemiak izan zuen eragina jorratu zen, eta, era berean, nazioarteko adierazpenak eta Europako beste agintaritzak batzuen esperientziak aztertu ziren.

Irailaren 23an, Lantaldeak MLBNren eta agintaritzak autonomikoen arteko espedienteen esleipena berrikusi zuen. Izan ere, gai hau ez da beti baketsua. Era berean, isunen ezarpenari buruzko gai partikularrak aztertu ziren, Compliance Gida eta Konfidentzialtasun Gida (MLBNk egindakoak) aurkeztu ziren, bai eta PICA plataformako berrikuntzak azaldu ere (bertan, lehia-agintaritzek informazioa partekatzen dute).

4.2.4 Bilera ACCOrekin (Lehiaren Kataluniako Agintaritzak)

Ikerketarako baliabide propioak indartzea aurreikusten du LEA/AVCk bere 2020ko Ekintza Planean. Helburu hori lortzeko, 2020ko martxoaren 2an bilera bat izan zuen ACCOrekin, softwarearen eta ikerketa-prozeduren gaineko esperientziak trukatzeko.

4.2.5 Lehia-Agintaritzak autonomikoen alde anitzeko bilera

2020ko udazkenean, LEA/AVCk zenbait bilera telematikoki egin zituen autonomia-erkidegoetako Lehia-Agintaritzekin, eta, hala, lehiaren defentsak aplikatzeko orduan eta lehia sustatzeko interes komunekin gaitan bere jakintza eta esperientziak trukatu zituen.

4.3 Lehiaren Sarearen inguruko beste topaketa batzuka

4.3.1 Fintech, Regtech eta Legaltechen Kongresua: Teknologia berriak arautzen dituzten oinarriak eta erronkak zuzenbidean eta finantzetan

Otsailaren 26an eta 27an, LEA/AVCk parte hartu zuen, besteak beste, teknologia berrien oinarriak aztertzeko (*blockchain*, algoritmoak, *Big data*, adimen artifiziala, robotikaren oinarriak, roboten araudi-esparrua) eta horiek hainbat jarduera-eremutan aplikatzen: finantza edo fintech; erregulazioa eta gainbegiratzea edo RegTech eta SupTech; eta lege-esparrua edo Legaltech. Halaber, teknologiak arlo horietan aplikatzeak dakartzan arau-mailako erronketan sakondu zen.

4.3.2 "Digital market control to detect competition infringements - Ekonomia digitalaren kontrola"

Martxoaren 2an, ekonomia digitalaren kontrolari buruzko tailer teknologiko hau egin zen, honako ziklo honen baitan: "Rethinking competition regulation in light of the digital revolution. La competencia en l'era digital". Antolatzaileak La Caixaeko Palau Macaya Fundazioa eta ACCO (Lehiaren Kataluniako Agintaritzak) izan ziren.

Online inguruneko datuak lortzearekin, ondoren horiek aztertzekeko prestatzearekin eta algoritmoak ondorioztatzearekin (alderantzizko adimena) lotutako arazoak aztertu ziren; eta, halaber, online ingurunean lehiaren aurkako ustezko jokabideak aztertu ziren (Price discrimination, lehiaren aurkako algoritmoak, etab.).

4.3.3 AEDC: Lehia eta COVID-19aren alarma-egoera

LEA/AVCko langileak webinar honetan izan ziren. Apirilaren 25ean, Lehiaren Defentsarako Espainiako Elkarteak (AEDC) antolatu zuen webinar hau, Espainiako eta nazioarteko lehia-agintaritzek COVID-19aren pandemiaren eta alarma-egoeraren ezohiko tesuinguruaren aurrean duten erantzuna aztertzeko.

4.3.4 Mintegia MLBNren eta autonomia-erkidegoen artean kontratazio publikoari buruz

Maiatzaren 29an, online mintegi bat egin zen. Bertan, MLBNko Lehia Zuzendaritzako Adimen Ekonomikoaren Unitateak (UIE) lizitazio publikoei eta arazoei buruzko ezagutzak, esperientziak eta zailtasunak partekatu zituen, bai ikuspuntu praktikotik (informazio-iturriak, datuen azterketa, etab.), bai teorikotik (lehiarik ezaren arazoak unitate ekonomiko gisa, etab.).

4.4 LEA/AVC foro globaletan

LEA/AVCren helburu estrategikoetako bat da nazioartean presentzia eta ikusgarritasuna izatea; izan ere, Europako araudiak eta jurisprudentziak, bereziki, eta nazioartekoak, oro har, funtsezko garrantzia dute lehia-agintaritzen eguneroko bizitzan. Lehiaren zuzenbidearen dimentsio orokor horrek inplikazio berezia eskatzen dio LEA/AVCri, erakunde aitortua izaten jarraitzeko eta Europako eta nazioarteko lehia-foro garrantzitsuenetako batzuetan parte hartzeko.

4.4.1 ICN Annual Conference

LEA/AVCk Nazioarteko Lehiaren Sarearen (ICN) Urteko Konferentzian (19.a) parte hartu zuen. Irailaren 14tik 17ra bitartean egin zen modu birtualean, Los Angelesen maiatzan egitekoa zen aurrez aurreko ekitaldia bertan behera utzi ondoren.

Lehia-politiken aplikazioari buruzko gaiak eztabaidatu ziren, batez ere ekonomia digitalari buruzkoak, eta ICNko lan-taldeek fusioen, kartelen, aldebakarreko jokabideen, agintaritzen sustapenaren eta eraginkortasunaren arloan egindako aurrerapenak azaldu ziren.

Konferentzian ICNko kide diren erakundeetako buru eta langileek, nazioarteko erakundeetako lehia-adituek eta arlo juridiko, enpresarial eta akademikoko gobernuz kanpoko aholkulariek parte hartu zuten.

4.4.2 Lehiari eta Kontsumitzailearen Babesari buruzko Nazio Batuen 8. Konferentzia


Nazio Batuen 8. Konferentzia horretan, maila gorenean aztertu eta berrikusi ziren lehia murrizten duten merkataritza-praktika kontrolatzeko alde anitzasunez hitzartutako bidezko printzipio eta arauen alderdi guztiak.

Konferentzia hori bost urtean behin egiten da, eta Nazio Batuen Lehiari buruzko Printzipio eta Arau Multzoaren alde anitzeko akordioa berrikusten du. Batzar Nagusiak 2015. urtean Nazio Batuen zuzentarauak eguneratu ondoren, 8. Konferentzia honetan, lehenengo aldiz, kontsumitzailearen babesarekin zuzenean lotutako gaiak aztertu ziren.

Konferentziara, urriaren 19tik 23ra, lehendakaria eta Enara Venturini bertaratu ziren, eta, horri esker, lehiaren gaineko eta kontsumitzailea babesteko gaietako jardunbide onak trukatu ahal izan zituzten munduko arduradunekin.

4.4.3 4th Annual Conference W@Competition

2020ko martxoan, W@Competition-ek bertan behera utzi zuen lehiaren esparruko emakume profesionalen elkarte horren urteroko aurrez aurreko konferentzia. Ondoren, zenbait webinar antolatu zituen azaroaren 4an, 6an, 12an eta 13an, lehiaren esparruko gaurkotasun-gaiei buruz.



4.4.4 OECD Global Forum on Competition

Abenduaren 7tik 10era LEA/AVCk telematikoki parte hartu zuen ELGAK antolatutako Lehiari buruzko Foro Globalean. Bertara, berariazko gonbidapenaren bidez baino ezin da sartu.

Foroa inaugurazio-saio ireki baten bidez hasi zen. Bertan, gai hauei buruz eztabaidatu zen: lehia-politikaren jarduera-arloetan funtsezko aldaketak sartu

beharra, hala nola, lege-aldaketak edo funtsezko helburuak zabaltzeko aukera, eta lehiaren politika-ren ikuspegia, zertarako eta bertan sartzeko industria-politikaren ideia, merkataritzako lehia-neutral-tasuna, desberdintasuna, errekuperazio-gaitasuna eta jasangarritasuna —kontsumitzaileen gaineko ikuspegi tradizionalaren aldean—.

Hurrengo saioretan, lehia-agintaritzak bakarrik egon ziren horietan, honako hauek aztertu ziren: merkatu digitaletako nagusitasunezko egoeraren abusua; kontzentrazioen kontrolaren azterketa ekonomiko; eta merkatu-azterketen erabilera, lehiaren arazo berriei aurre egiteko tresna gisa.



4.5 Gizartera hurbildu: LEA/AVCk antolatutako jardunaldia

Bere zeregin instituzionalaren eta lehia sustatzeko eskumenen esparruan, 2020an LEA/AVCk lehiaren balioak, oro har, eta gaurkotasuneko gaiak, zehazki, helarazi ditu gizartera eta bertako erakunde eta eragileengana.

Jarraian, antolatutako jardunaldiak, foroetan eginda-ko esku-hartzeak, Lehiaren Compliance-ari buruzko ekimenak eta Agintaritzak gizartearen aurrean duen ikusgarritasuna bezalako jarduerak zerrendatu dira.

4.5.1. Lehiaren alorreko betetze-programen erronkak eta abaguneak gobernu korporatiborako eta enpresen betetze-kulturarako

Otsailaren 6an, jardunaldi horretan —Cuatrecasasek eta LEA/AVCk antolatua—, zenbait aditu bildu ziren lehia-araudia betetzeko eta beste arlo batzuetako compliance korporatiboa egiteko gaiei buruz. Halaber, arlo horretan enpresek dituzten erronka eta aukeren ikuspegi orokorra eman zuten.

LEA/AVCko lehendakariak, besteak beste, lehiaren araudiak enpresa arau-hausleentzat izan ditzakeen arriskuak azaldu zituen, eta horiek betetzen direla ziurtatzeko neurri praktikoak proposatu zituen. Agintaritzak honek, zehazki, 2019ko urrian argitaratutako “Lehiaren alorrean betetze-programak ezartzeko gidaliburuan” sakondu zuen horri buruz.





4.5.2 Udako ikastaroa (UPV/EHU): “Lehiaren zuzenbidearen aplikazio eraginkorrago baterantz, merkatu lehiakorragoak lortzeko”

LEA/AVCK online ikastaro hau antolatu zuen. Ekainaren 22an egin zen, telematikoki, eta Lehiaren Zuzenbidea modu eraginkoragoan aplikatzeko eta merkatu lehiakorragoak lortzeko Lehiaren Agintaritzek eta Auzitegiek eskura dituzten tresnak aztertu ziren.

2019/1 Zuzentarauan sakondu zen, ECN+ Zuzentaraua izenekoan, eta arreta berezia jarri zen honako gai hauetan: autonomia-erkidegoetako agintaritzen erabilera; lehia-agintaritzen ikuskapen- eta ikerketa-ahalmenak; lehiaren aurkako jokabideengatik isunak; transakzioa eta erukitasuna, kartelen aurkako borrokarako tresna eraginkor gisa; lehiaren compliance-a, prebentziorako tresna gisa; eta aplikazio pribatuaren zeregina, lehiaren zuzenbidearen eraginkortasuna hobetzeko tresna gisa.

4.5.3 Lehiaren Zuzenbidea eta erronka berriak futbol profesionalean pandemiaren aurrean

Azaroaren 26an, jardunaldi bat egin zen, eta bertan, berrogeita hamar pertsona bertaratu ziren aurrez aurre, eta, 200 pertsona baino gehiago streaming bidez.

Lehenengo mahai-inguruan, honako gai hau aztertu zen: “Fair play finantzarioa futbol-klubetan COVIDaren aurrean eta horren ondorioak” –Javier Tebas, Ligako burua; Jon Berasategi, Athletic Klubeko gerentea; eta Juan Luis Cruceleguim Nazio Batuetako Lehiaren eta Kontsumitzailearen Babesaren Politiketako Saileko burua–.

Bigarren mahaian, berriz, gai hauek eztabaidatu ziren: “Ikus-entzunezko eskubideak eta lehia” –Andreu Camps, Espainiako Futboleko Errege Federazioko idazkari nagusia; Javier Tebas, Ligako burua; María Tato, Espainiako Futboleko Errege Federazioko Emakumezkoen Futboleko zuzendaria; eta Amaia Gorostiza, Eibar Kirol Elkarteko burua–.

CURSO ONLINE EN DIRECTO - Hacia una aplicación más eficaz del Derecho de la competencia para conseguir mercados más competitivos

22-06-2020

09:15 - 09:20
Alba Urresola Clavero Autoridad Vasca de la Competencia - Presidenta

Alto Zurimendi Iria Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea - Catedrático de Derecho Mercantil

09:20 - 09:30
"Presentación institucional Autoridad Vasca de la Competencia "

Alba Urresola Clavero Autoridad Vasca de la Competencia - Presidenta

09:35 - 10:00
"Las autoridades Autonómicas de competencia ante la Directiva ECN+ "

Enara Venturini Consejo Autoridad Vasca de la Competencia - Vocal

10:05 - 10:40
"Las facultades de inspección e investigación de las autoridades de competencia "

Rocío Becerra Basa Comisión Nacional de los Mercados y de la Competencia - Subdirectora adjunta de la Dirección de Vigilancia

10:45 - 11:25
"La imposición de multas por conductas anticompetitivas "

Julio Centas Comesaña Consejo CNC desde 2007 hasta 2013. - Catedrático de Derecho Mercantil Universidad de Vigo

11:30 - 12:05
"La transacción como herramienta para ser más eficaz en la lucha contra los cárteles "

Eugenio Córado Peralta Universidad de Málaga - Profesor Titular de Derecho Mercantil

12:10 - 12:45
"La clemencia como herramienta para ser más eficaz en la lucha contra los cárteles "

Silvia Gómez Trinidad Universidad de Barcelona - Profesora Agregada

12:50 - 13:35
"El compliance de Competencia como herramienta de prevención "

Rafael Iruviaga Nieve Consejo Autoridad Vasca de la Competencia - Vocal

13:20 - 13:50
"El papel de la aplicación privada como instrumento para mejorar la eficacia del derecho de la competencia "

Alto Zurimendi Iria Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea - Catedrático de Derecho Mercantil

13:50 - 14:00
Síntesis

Derecho de la Competencia y los nuevos retos en el fútbol profesional ante la pandemia
Jueves 26 de noviembre, 11:00 h.

Egitaraua

10:30ean. Bertaratuaren hasiera

11:00ean. Aurkezpen instituzionala

- Alba Urresola, Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentea
- Alto Zurimendi Iria, Athletic Club-eko presidentea

11:15ean. 1. mahai: "Finantzio arazoak fair play-a futbol taldeetan COVIDaren eta hauek ondorioak auzeratu"

- Javier Tebas, LaLiga presidentea
- Jon Berasategi, Athletic Club-eko gerentea
- Juan Luis Crucelegui, Nazio Batuen Erakundeko Lehia Politikaren eta Kontsumitzaileen Babes Saileko burua

Modontrazatzaile: Janire Fragoa

12:15ean. 2. mahai: "Ina-entzunezko eskubideak eta lehia"

- Andreu Camps, Espainiako Errege Futbol Federazioaren Idazkari Nagusia
- Javier Tebas, LaLiga presidentea
- María Tato, Espainiako Errege Futbol Federazioaren Emakumezkoen Futboleko zuzendaria
- Amaia Gorostiza, Eibar S.A.D. Kirol Elkarteko presidentea

Modontrazatzaile: Janire Fragoa

12:30ean. Amaiera

Programa

10:30h. Recepción de asistentes

11:00h. Presentación institucional

- Alba Urresola, Presidenta de la Autoridad Vasca de la Competencia
- Alto Zurimendi Iria, Presidente del Athletic Club

11:15h. Mesa 1: "El fair play financiero en los clubs de fútbol ante el COVID y sus consecuencias"

- Javier Tebas, Presidente de LaLiga
- Jon Berasategi, Gerente del Athletic Club
- Juan Luis Crucelegui, Jefe del Departamento de Políticas de Competencia y Protección al Consumidor de Naciones Unidas

Modontrazatzaile: Janire Fragoa

12:15h. Mesa 2: "Derechos audiovisuales y competencia"

- Andreu Camps, Secretario General de la Real Federación Española de Fútbol
- Javier Tebas, Presidente de LaLiga
- María Tato, Directora de Fútbol Femenino de la Real Federación Española de Fútbol
- Amaia Gorostiza, Presidenta de la Sociedad Deportiva Eibar S.A.D.

Modontrazatzaile: Janire Fragoa

12:30h. Clausura



4.6 Gardentasuna

4.6.1 Komunikabideak

2020an, Agintaritzak 22 prentsa-ohar egin eta bidali zituen komunikabideetara, bere jarduerari buruzko gai garrantzitsuei buruz, hala nola txostenei, ebazpenei, sariei edo jardunaldiei buruz. 2020an, 179 agerraldi erregistratu dira komunikabideetan, prentsa-kabineteak egindako komunikazio-ekintzetan. 179 inpaktu horietatik 54 bitarteko inprimatuak dagozkie eta 125 online baliabideei.

Gainera, hiru elkarrizketa egin ziren Radio Popular eta Radio Euskadin.



4.6.2 Newsletter LEA/AVC

2020. urtean, LEA/AVCk harremanetarako kanal berri bat sortu du, sei hilean behin argitaratutako berripaper baten bidez. Hala, ekainean eta abenduan mailing bidez eta sare sozialen bidez zabaldu zuen informazio hori, bere jardueraren berri emateko.



4.6.3 Webgunea www.competencia.euskadi.eus

LEAlk bere ebazpenetan gardentasunez jokatzeko eskatzen dio LEA/AVCri. Bada, webguneak betebeharrori betetzen dela bermatzen du. Gainera, LEA/AVCren webguneak erakundearen jarduerari buruzko informazio guztia biltzen du; besteak beste, IZk espedienteak irekitzeko hartutako akordioak, Kontseiluak zehapen-espedienteen esparruan emandako ebazpenak, Lehia Sustatzeko txostenak, azterlanak, gidak eta beste agiri batzuk (tartean LEA/AVCk antolatutako ekitaldiei buruzkoak). Hala, 2020an guztira 71 eduki berri argitaratu dira bertan.

Baina, gainera, www.competencia.euskadi.eus izan da honako hauek zabaltzeko komunikabidea:

- 2020ko Ekintza Planari eta "Erregulazioaren Hobekuntzari" buruzko kontsulta publikoak
- enpresentzako informazio esanguratsua, koronabirusaren pandemian zehar egin litezkeen lankidetzak-akordioei buruz
- 22 prentsa-ohar
- 2020an sartutako sustapen-txostenen edukiak



4.6.4 LinkedIn

LEA/AVCk 54 post zabaldu ditu gizarte-sare horren bidez —2018an sartu zen sare horretan—, eta 313 jarraitzaile ditu 2020ko abenduaren 31n; horrek esan

nahi du % 82 hazi dela jarraitzaileen kopurua aurreko urtearekin alderatuta.





Kudeaketa
iraunkorra eta
pertsonegan
oinarritua



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

V

Kudeaketa iraunkorra eta pertsonengan oinarritua

1

GIHekin lerrokatutako jarduera



2020. urtean zehar, LEA/AVC ohartu zen bere jardue-
ra Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lerrokatu
beharra zegoela. Helburu horiek Agenda 2030ean
jasotzen dira. Pandemia-egoera eta kolusiozko edo
abusuzko jardunbiderik gabeko merkatu arinak
bermatzearen garrantzia (enpresen askatasunari eta
kontsumitzaileei kalterik ez egiteko) funtsezkoak izan
ziren. Izan ere, horrexegatik erabaki zen lehia-agin-
taritzaren gizarte-eragina ebaluatu beharra zegoela,
eta Agendan finkatutako ekonomia-, gizarte- eta
ingurumen-alderdiak hobetzen lagundu beharra
zegoela.

Horregatik, 2020an 17 GIHa LEA/AVCren Estrategian
integratzeko ekintzak hasi ziren, lehiak jarduera eko-
nomikoan eta gizartean duen eragina ikusarazteko
funtsezko elementu gisa.

Lehenik eta behin, sentsibilizaziorako barne-jardunal-
di bat egin zen, Agintaritza honentzat lehenatasuna
duten GIHa zehazteko lanari eta xede eta adierazle
egokiak ezartzeari ekin aurretik.



2

Pertsonen prestakuntza




Prestakuntza LEA/AVCn lan egiten duten pertsonen motibazio pertsonalaren eta profesionalaren giltzarrietako bat da. Lehian aritzeko, gainera, araudi- eta jurisprudentzia-arloko azken joera eta nobedadeetan egunean egon beharra dago. Horregatik, LEA/AVCk

etengabeko prestakuntzarekin duen konpromisoa funtsezkoa da. Hori horrela, 2020an prestakuntza-ikastaroetan parte hartu da (prestakuntza-ekintzeta-ko dedikazioa 172 ordukoa izan da).



3

Genero-berdintasunarekiko konpromisoa



LEA/AVC jabetzen da genero-berdintasunean aldaketak ezartzeko ahalmen handiena bi eremutan duela: batetik, kanpo-komunikazioan, eta, bestetik, bereziki maskulinizatutako eremuetako emakumeen sareetan parte hartzeko programetan.

Horregatik, jardueren helburuak honako hauek izan dira:

- ⇒ Oroitidazki, argitalpen, txosten eta espedienteetan hizkuntza ez-sexista erabiltzeko konzientzia eta arreta hobetzea. Ildo horretatik, sortutako dokumentazioan hizkuntza eta irudiak sistematikoki berrikusi dira.
- ⇒ Foroetan parte hartzeak ikusgarritasuna ematen die lehiaren zuzenbidean parte hartzen duten emakumeei, presentzia profesionala normalizatzeko bai eremu publikoan: W@COMPETITION (Woman Competition), bai bere talde iberiarrean: Woman W@COMPETITION IBERIA.

2020an, 4th Annual W@Competition Conference biltzarrean parte hartu da. Hala, martxoako aurreikusitako aurrez aurreko biltzarrera bertan behera utzi ondoren, azarorako berrantolatatu zen, modalitate birtualean. Lau webinarretan banatu zen biltzarra, hilaren 4, 6, 12 eta 13an. Webinar horietan, 3 mahai-ingurutan parte hartu zen, 3 hitzalditara bertaratu (Double Espresso Talks), elkarrizketa bat egin zen Isabelle de Silvarekin (Autorité de la concurrence-ko burua) eta "Women & Antitrust: Voices from the Field" liburuaren aurkezpenean parte hartu zen. Bertan,

lehiaren arloko mundu osoko emakume profesionalak hausnarketak eta aurreikuspenak partekatu zituzten lehiaren politika eta zuzenbidearen gaineko gaurkotasuneko gaiak buruz. Besteak beste, emakume horiek beren roleri buruzko ikuspegiak partekatzen dituzte, eta aholkuak ematen dizkiete eremu horretan sartu nahi duten profesional gazteei.

- ⇒ Emakumea lan munduan sartzeko laguntzeko programetan parte hartzea: Europako Elkarrean graduatutako emakumeentzako Mentoring Programa, Lehiaren Zuzenbidearen arloan.


Programaren helburua da emakume profesionalak aholkularitza aditu, inpartzial eta independenterako sarbidea erraztea eta parte-hartzaileei sareak ezartzeko aukerak ematea. LEA/AVCko lehendakariak, aholkulari gisa eta bere esperientziatik abiatuta, emakume gazte baten prestakuntzan lagundu du, bere ibilbide profesionala bideratzeko orduan.

2020. urtean izan den osasun-larrialdiaren egoera ikusirik, martxoan amaitu zen programa honetako parte-hartzea.

Era berean, gure webgunean puntu lila jarri dugu, hots, emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duen sinbologia.

4

Pertsonak, taldearen parte



LEA/AVCko taldeari dagokionez, 2020an Zuzendaritza Nagusiaren egitura indartu duten bi lanpostu berri sartu dira: administrazio eta zerbitzuetako teknikari bat eta administrari-laguntzaile bat.

Horrenbestez, LEA/AVCn 14 profesional daude:

Lehendakaria: Alba Urresola Clavero

Lehiaren Euskal Kontseiluko kideak:

- Rafael Iturriaga Nieva
- Enara Venturini Alvarez

Ikerketako zuzendaria: Joseba Andoni Bikandi Arana

Idazkari nagusia: Ainara Herce San Martín

Lehia-arduradunak: 5

Goi-kargudun idazkaria: 1

Administrariak: 3


LEA/AVCn, era berean, 4 organo daude:

- lehendakaria, pertsona bakarreko organoa da; LEA/AVC zuzendu eta ordezkatzeko eginkizunak betetzen ditu, eta Lehiaren Euskal Kontseiluko burua ere bada.
- Lehiaren Euskal Kontseilua, LEK, lehia sustatzeko eta horri lotutako gaiez ebazteko kide anitzeko organoa da; lehendakariak, bi kontseilu-kidek eta idazkari nagusiak osatzen dute; azken horrek ahotsa bai, baina ez du botorik.
- Ikerketa Zuzendaritza, instrukzio-eginkizunak betetzen ditu.
- Idazkaritza Nagusia Lehiaren Euskal Kontseiluari laguntza material, administratibo eta teknikoa emateko organoa da, baita aholkularitza juridikoa ere.



5

Baliabide ekonomikoak



2020ko ekitaldian, LEA/AVCK 1.630.000 €-ko aurrekontu eguneratua izan zuen.

Laburbilduta, honako hau izapidetu eta bete da, kontzeptuka laburbilduta:

Kontzeptua	Aurrekontua		Obligazio onartuak		Ordainketak	
	€		€	Aurrekont. %	€	Aurrekont. %
Langileen gastuak	1.138.438,00		1.006.091,34	%88	1.005.499,32	%88
Funtzionamendu-gastuak	491.562,00		232.202,54	%47	170.724,05	%35
Gastu arrunten diru-laguntzak eta transferentzia	0		0	-	0	-
GUZTIRA	1.630.000,00		1.238.293,88	%76	1.176.223,37	%72

*Oroitidazki hau argitaratzean dauden azken itxiera-datuak, 2020ko abenduak.



6

Baliabide materialak



Honako proiektu hauetan lan egin da:

- Webgunearen hobekuntza
- Administrazio elektronikoa: sistemen digitalizazioa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.
- Datuen babesa: Tratamendu-Jardueren Erregistroa (TJE) eguneratzea, Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorra betez ¹.
- LEA/AVCK datuak tratatzeko egiten dituen jarduerak Euskadiko Erregistroaren webgunean kontsulta daitezke ².
- COVID-19: baliabide materialak egokitzea, batez ere informatikoak –softwarea eta hardwarea–, langile guztien telelana ahalbidetzeko derrigorrezko konfinamendu-denboran.

1 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarera, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena

2 <https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/>





Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia





Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

Ercilla 4, 2º 48009 BILBAO
Tel. 944 032 800
www.competencia.euskadi.eus
infocompetencia@avdc.eus